

ANDONI EGAÑA

# MAKATZA



FUNDAZIOA



Lehen agitaraldia: 2024, azaroa.  
Athletic Club Fundazioa  
[www.athleticclubfundazioa.eus](http://www.athleticclubfundazioa.eus)  
[info@athleticclubfundazioa.eus](mailto:info@athleticclubfundazioa.eus)

L.G.:

© Testua: Andoni Egaña  
© Argitalpen honena: Athletic Club Fundazioa

Edizioa: Izaskun Gracia Quintana  
Diseinua: Latapadera Creaciones

Liburu honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.

Eragotzita dago, legeak ezarritako salbuespenetan izan ezik, obra honen edozein berregintza, komunikazio publiko edo moldaketa, aurrez jabetza intelektualaren titularren baimena eskuratzen ez bada.

ANDONI EGAÑA

# MAKATZA



## I. ATALA

Makatza!

Hori zen umetan, nerabetan eta gaztetxotan gehien entzuten nuen hitza: Makatza!

Norbere izena izaten da nortasunaren lehen seinalea, baina nire kasuan, etxean baino ez zidaten deitzen izenetik. Lagunartean, eskolan, herrian... Makatza nintzen. Eta, egia esan, ez nuen gaizki hartzen izendapena. Herrian, garai hartan behintzat, bitxia eta sailez kanpoko ezizenik ez zuena zen. Ni Makatza nintzen, baina baziren Pantolin-goak, Txiliku, Akelinonekoak, Basarri, Saberri, Gastaka... Eta Txorten, eta Barrentzo, eta Toxa... Gehienek etxeari edo baserriari zor zioten goitizena. Nik ere bai.

«Makatza, mugitu hadi!», esaten zidaten zerbait egin behar eta erdi lo harrapatzen nindutenean; «Makatza, hago geldirik!», norbaiti zerbaiterako enbarazu egiten nionean; «Makatza, hoa hara!»; «Makatza, hator hona!». Dena zen Makatza nire haurtzaroan.

Etiket zetorkidan izena. Makatzanekoak ginen gu, Makatzanean bizi ginelako. Eta aitona eta aitari bezala, niri ere itsatsi zidaten izengoitia. Senideen artean neu bakarrik nintzen gizonetza. Nire lau arreba ere Makatza ziren, baina ez ni bezain Makatza. Haiei gehiago deitzen zieten bakoitzari bere izenez.

Minik ez zidan ematen, baina jakin-mina sortzen zidan ezizenarenak. Behin, hamaika-hamabi urte nituela, eskolako liburutegian, *Makatza* hitzak zer esan nahi zuen bila ibili nintzen. Uste dut Plácido Mugika izeneko baten hiztegian aurkitu nuela. Makatza deitzen zitzaion fruta-arbola txertatu gabeari. Fruitua berez ematen zuenari. Baziren sagar-makatzak eta baziren udare-makatzak, esaterako... Ez nekien ongi ulertu nuen.

Badaezbada, gazteleraz zer jartzen zuen begiratu nuen. Bi adiera azaltzen ziren makatzarentzat. Lehenengoak ez zidan tilin handiegirik egin: *Silvestre*. Kale-kalekoa nintzen, nahiz eta gure etxea kale-baserria izan! *Silvestre*, ni? Bigarrena gehiago gustatu zitzaidan: *Sobrio*. Makatza izatea hori bazen, izenari izanarekin eusten saiatuko nintzen aurrerantzean. Ez nintzen ume kasketoso eta mizkina izango; ez nuen ahoa gehiegi zabalduko; ez nituen nire lorpenen eta porroten kontakizunak loratuko...

Gogoan dut ze egunetan eta ze unetan entzun nuen *Makatza!* desberdin hura. Miara joanak ginen eskolatik arratsalde-pasa. Futbol-partida bat jokatzeko aski zelai bazen Mian. Ama gehienek esaten ziguten freskatzen bazuen ere, badaezbada, jertsea hartzeko, eta bi ate osatzeko behar

ziren lau jertseak baino askoz gehiago geneuzkan. Erramunek eraman zuen guztiok hainbeste desiratzen genuen eta berea baino ez zen baloi hura. Altxor bat garai haietan. Baloiak oso ongi bereizten baikenituen. Gauza bat zen baloi arrunta, plastikozkoa, haizeak firin-faran ibiltzen zuena eta edozein ostikadarekin apurtzen zena. Eta beste bat zen «regalmentuzko baloia», larruzkoa, futbolari profesionalek erabiltzen zutenaren oso antzekoa. Haietako baten jabe zen Erramun.

Ate bi osatzeko jertseak asko eta baloi bat aski, futbol-partida jokatuko genuen Mian. Baina taldeak osatu behar ziren horretarako. Eta taldeak osatzeko modua beti bera izaten zen: bi kapitainek (auskalo norik eta zergatik aukeratuak, baina berek gehientsuenetan) egiten zuten bakoitzak bere taldearen aukeraketa. Ez zeremonia burutu gabe, ordea. Bizpahiru metroko tartera jartzen ziren elkarrengandik, eta aurrera egiten zuten oina oinaren aurrean jarriz. Bestearen oina zapaltzea izaten zuten helburu. «Oinak egitea» deitzen genion horri. Zenbat eta hurbilago elkarrengandik, orduan eta malizia gehiago erabiltzen zuten kapitainek. Oin osoa luzatu beharrean erdia trabeska jartzea zilegi zen. Eta baita puntta soilik ipintzea ere. Baina une bat iristen zen, non batak bestea zapaltzen zuen.

Zapaltzailea izaten zen taldekideak aukeratzen hasten zena. Onena hautatuko zuen lehenik. Gero, beste kapitainak, ustez bigarren onena. Hirugarren onena gero, lehen kapitainak, eta laugarren onena bigarrenak... Ni azkenerako utzi ninduten. Azken-azkenerako. Nire ustez, ez nintzen

gelakideen artean gorpuzkerarik aldrebesekoena, baina iritsi berria nintzen eskola hartara.

Ez nuen gaizki hartu ni azkenerako utzi izana. Ezagutzen ez dugunaz ez gara fio; beldurra diogu heldu berriari. Eta ni, irailaren amaierako aste hartan, artean migrantea nintzen eskola hartakoentzat.

Okerrago hartu nuen kapitainaren agindu zehatz eta tinkoa:

—Makatza! Hi, portero!

Inork ez zuen atezaina izan nahi izaten. Nerabezaroan sartuta, korrika egiteko grina nuen nik, baloiari astindu latzak ematekoa, aurkariari bultzatzekoa edo norbait zangotrabatzekoa. Juxtu kontrakoa eskaini zidaten gelakideek. Geldi egon beharra. Bakardadea, alde banatara jertse bana. Baloia oso noizbehinka baino ukitu ezina. Eta erantzukizuna...

Lehen erdiratzean, baloia nireganatzen saiatu nintzen. Irrist egin zidan eskuen artetik eta han zegoen baloiaren zain Joxe Mari. «Gooool!», egin zuten oihu aurkariak. Gure kapitainak errieta egin zidan zelai erditik.

—Makatza, zer dauzkak, buztinezko eskuak?

Burumakur geratu nintzen une batez. Eta gero, atearen atzeko sastrakartera ihes egin zuen baloi haren bila neu joan nintzen, lagunen purrustadak entzutea baino hobea zen eta.

Baloia itzuli jokorako, eta irudizko ate haren pean jarri nintzen berriro, lehen ez bezala, baloia noiz hurbilduko ikaraz orain. Bigarren aldiz segidan huts egingo banu,



auskalo ze izengoiti jarriko lidaketeen, gelakideen artean lagun irudimentsurik ez baitzen falta. Akaso, herriko baserri baten izena baliatuz Buztinzuri deituko lidaketeen nire eskuen zuria eta guria azpimarratuz; akaso, Fray Bartolo, hura ere porterian egoten baitzen —fraideen elizarenean—, beti kieto; edo Ezinhover, Ameriketako presidentearen deitura eta nire ahalmenik ezarekin jolas eginez. Eta nik, zerbait deitzekotan, Makatza deitzea nahi nuen.

Gogoeta horietan ari nintzela baloia hurbiltzen sumatu nuen. Lehen erdiratu zuen gelakide berak zeraman, eta lehengoaren antzeko erdiraketa bat egitera zihoala ohartzeko ez zen azeriegia izan beharrik. Estutu egin nintzen. Bazetorren...

Une hartan entzun nuen ahots bat, gizonezko heldu batena. Zelaiaren kanpoko zelaian arituko zen sega pikatzen. Ezagutu egingo ninduen nonbait. Aitaren lagun bat izango zen. Gure lurra ez zeuden Miatik urrutiegi. Erdiraketa atera zuen momentu berean entzun nuen oihua:

—Makatza, zapelatzak txita bezala, rau!

Begi zeharka begiratu nion, arreta baloian. Iruditu zitzaidan bi eskuak elkarri lotuak jarri zituela eta zapelatzak txita harrapatzen duenean egiten duen imintzioa egiten ari zitzaidala. Egin nuen jauzi, eta eskuen artean harrapatu nuen baloia, ziur, erraz, tinko. Zapelatzak txita bezala. «Bejondeiala!»ren bat entzun nuen taldekideen artean. Baloia ostikoz aurrera jo eta gizonezko baserritar haren ahotsa entzun uste nuen lekura begiratu nuenerako, han ez zen inor ageri.

## MAKATZA

Baina buruan iltzatuta geratu zitzaidan inondik ere inora neuk asmatua izan ez zitekeen esaldi hura:

—Makatza, zapelatzak txita bezala, rau!

Ez nekien nik, atezain izatera behartu ninduten arratsalde hartan, hurrengo urte eta urteetan esaldi horrek niretzat izango zuen garrantzia.

## II. ATALA

«Como un viejo guerrero que ha colgado las armas y dis-  
futa de su retiro, Casa Makatza descansa discreta en una  
esquina de la Plaza de la Música. Desde allí se dedica a  
contemplar la vida del pueblo».

Hori idatzi zuen kazetari batek gure etxeaz. Egunkari-zati  
hura moztu, eta sukaldean zintzilikatu zuen gure aitak,  
harro. Gure etxea edozein etxe ez baitzen. XV. mendean  
hasi ziren eraikitzen eta XVI.enean amaitu. XX.aren erdia  
baino lehenxeago jaio nintzen ni bertan. Horrek esan nahi  
du bostehun urteko historia bazuela gure etxeak ni iritsi  
aurretik.

—Palazio batean bizi haizela esan zidatek etxean, Makatza...  
—bota zidan eskola berrian hasi berritan gelakide batek.

Ezetz erantzun nion. Gure etxea ez zela jauregia, baserria  
baizik. Baina zurrumurrua zabaldu zen, eta eskolaorduak  
amaituta, gelakide gehienekin batera etxera joan behar  
izan nuen zer zen erakustera.

Kanpoaldetik gehien gustatu zitzaiena etxearen saihets batean zeuden gezi-zirrikituak izan ziren. Jauregi baino gotorleku izana zen gure etxea. Eta saetera deitzen genien haiek han zeuden, harrizko horma zabalean estu eta luxe, bost menderen joanari eutsiz. Zirrikitu haietan barna, barrukoek aisa babes zezaketen beren burua kanpoko erasotzailearengandik. Jaurti zitzakeen geziak berak jasango ez zituen ziurtasunez.

—Bihar arkuak eta geziak egin behar ditiagu hurrengo batean jolasera etortzeko! —otu zitzaion Peiori, gelako bihurrienari.

Eta halaxe egin genuen. Biharamunean, eskolak bukatu eta oso gertuan geneukan Vista Alegreko parkera jo genuen. Han bazen kainabera ugari, lodi eta mehe, luze eta labur. Norbaitek bazuen garai hartan oso preziatua genuen labana horietako bat eta harekin moztu ondoren, arkuak egiten hasi ginen. Listaria lortu genuen gero. Eta arbola adarrekin egin genituen geziak. Ustez gerrarako ongi presatatu ginenean, gure etxera jaitsi ginen. Bi lagunekin igo nintzen ni. Hiruok izango ginen Jauregia defendatuko genuenak. Hamar bat lagun kanpoan geratuko ziren, gure etxea bereganatzeko asmotan. Eta hasi ginen elkarri geziak jaurtitzen.

Doi-doi dut gogoan zer gertatu zen. Ezer onik ez. Gezietako batek begi-ondoan jo zuen Txomin, eta odoletan hasi zen. Txilioak eta negarrak. Herriko aguazilaren errieta. Eta ondoren, gurasoena. Ea burutik egina nengoen. Etxea ez zela txoro-jolasetarako. Zigorrik ez dut gogoan, baina

litekeena da hurrengo egunetan ohikoa baino lan gehiago agindu izana.

Barrukaldetik ere gustatu zitzaien gure etxea gelakideei, kanpotik gotorlekua zirudiena baserria baitzen barrura sartzean. Ongi taxututako ikuiluak geneuzkan. Ikuiluan, berriz, animaliak. Bizpahiru behi, txahalen bat hazteko, as-toa, txerria, oiloak, untxiak... Askotan gogorarazten zigun aitak. Etxea ez zen txoro-jolasetarako. Etxea bizimodua ateratzeko zen.

—Eman txahal horri jatena beldurrik gabe! —agintzen zigun aitak. Ederra dago hori mataderiarako! Saeteratik ere aterako genuke tirakada batzuk eman ez gero!

Ikuilua txundigarria eta jatena banatzea ekintza zoragarria iruditu zitzaizkien gelakide kale-kaleko haiei ez bezala, nire arrebei eta niri gogaikarri gertatzen zitzaigun animaliak gobernatu beharra. Lana, eta ez jolasa.

Urtero, irailaren 20a hurbiltzean aldatzen ziren kontuak. Orduan jolasleku bihurtzen zen gure ikuilua. Herriko plazan bertan zegoen gure etxea eta irailaren 20ko festarako zezenak ekartzen zituztenean, haiiek gordetzeko toki hoberik ez zen gure ikuilua baino. Pare bat egun izaten ziren denera. Baina a ze gozatua hartzen genuen etxean bertan zezenak —benetako zezenak— edukita! Haien ibiliari, haien adarrei, haien futatekoei adi egoten ginen. Eta tarteka, beti ere leku segururen batetik, xaxatu ere egiten genituen, zenbateko jenioa zuten probatzeko. Gero, plazara ateratzean irten-ez irten zebiltzan lagunei argibideak

ematen genizkien. «Irtetekotan, gorriari ez irten, oso bizia duk eta!» edo «Zezen arreak ezkerreko adarra okerra eta zorrotza dik. Erne horrekin!».

Baina dena ez zen jolas izaten irailaren 20ko festa haren inguruan. Lagunetako norbaitek, isilka, baina esan egin zuen bere gurasoek esan ziotela eurek ez zutela ezer ospatzekorik irailaren 20an. Hori frankisten jaia zela. Gerra zibila hasi zen urtean, irailaren 20an bereganatu zutela gure herria Donostia aldetik etorrita, eta horregatik egiten zirela jaiak egun hartan. Harritu egin nintzen ni. Eta, hurrengo goizean gosaltzen ari nintzela, amari galdetu nion:

—Ama, egia al da irailaren 20ko festak frankistenak direla?

Amaren begietan ikara sumatu nuen. Eta tinko egin zidan hitz:

—Ixo, ume. Gauza batzuk ez dira hitz egitekoak!

Orduan jabetu nintzen gerrek ezer onik ez dakartela. Ez ni jaio aurretik izan zen egiazko hark, ezta Txomini ia begia galduarazi zion gure jolasetako hark ere.

### III. ATALA

—Makatza, zapelatzak txita bezala, rau!

Mian lehen aldiz hura entzun nuenetik gerora, atezain jartzen ninduten eskolako edo lagunarteko futbol-partidetan. Baina ez iritsi berria nintzelako edo inork nahi izaten ez zuen postua izaten zelako, ona omen nintzelako baizik.

—Makatza oso ona da! —esango zuen beti norbaitek, atezain nor jarri eztabaidatzen hastean.

Eta «oinak egitean» ere, gero eta lehenago aukeratzen ninduten. Gustua hartzen hasi nintzaion atea zaintzearen horri, nor izaten laguntzen zidan eta. Ateak ez zirela ate, horixe zen arazoa. Umetako jolas haietan, Mian bezala bi jertse, edo bi harri edo bi makila-zotz izaten ziren gure ate murrizak. Langarik ez. Eta horrek tranparako bideak irekitzen ditu, azerikeriarakoak. Horretan ez nintzen hain ona. Peiok behin errieta egin zidan:

—Babua ematen duk, Makatza! Atera goitik datozkian txut horietan, atzerantz egin behar duk salto. Okertuta.

Eta baloia parean pasatzearekin heuk egin behar duk oihu:  
Alta!

Epailerik ez eta langa falta, atezainaren azkarkeriak erabakitzen zuen baloi bat gola zen ala ez. Jauzi egitea baino hobea zen jauzteko itxura egin eta baloia oso goitik pasa zenaren plantak egitea. Alta! eta kito. Neurezkorik ez nuen horrelakoetarako, baina lagunik bihurrienen laguntzarekin tranpa txiki horiek ere ikasten hasi nintzen.

Montoiarena, bestea. Montoia deitzen genion guk, baloia lurrean zela, egokiago jotzeko egiten genuen lur- edo hondar-tontorrari. Montoirik egin ezean, ez zen erraza baloia harrotzen. Montoia egin, eta han kokatuz gero, errazago bidaltzen zen baloia zelai erdi ingururaino. Eta nik ateko sakeak askotan egin behar izaten nituen. Hasiera hartan nahi baino gehiagotan geratzen nintzen ateko sakean motz. Baina ez dakit zergatik neuk ere, ez nuen maite montoia egiten hastea.

—Makatza, egin ezak montoia, motel! —esaten zidaten taldekideek motz geratzen nintzenetan.

Niri, ordea, tranpa egitea iruditzen zitzaidan montoiarena. Eta denbora alferrik galtzea. Atezainak montoia egiten berandutzen bazuen, ez zegoen aurkarien taldea ezustean harrapatzerik. Horregatik, nire kabuz ikasi nuen baloia eskuz ateratzen. Besoa gakotu eta indarrez jaurtitzen nuen, askotan zelai erdia baino urrunago, eta jardunaren poderioz, begia non, han jartzen nuen baloia ere.



—Ez gaituk zesta-puntan ari! —entzun izan nuen purrustada baloia horrela atera nuen lehen aldietan.

Ohitu egin ziren gero nire ateratzeko modu bitxi hartara. Egia esan, denera ohitzen ginen geuk arauturiko jolas hartan. Alta! oihu egitera, montoia osatzera eta baita hor zai-ra ere.

Eskolak —kanturen batzuk salbu— gazteleraz ematen zizkiguten baina guk euskaraz egiten genuen kalean jolasean genbiltzanean. Horregatik, aski erraz ikasi genuen jokoz kanpoko araua zertan zetzan. Ingelesez, jatorriz, offside zen hura hor zai bihurtu genuen euskaraz. Eta izenak logika osoa eransten zion izanari: «Bahago ba hi HOR, ZAI, baloia baino aurrerago eta atera bitartean bi aurkaririk gabe?».

Miako arratsalde hartatik hiruzpalau urte pasatzerako atezaina nintzen. Besteek hala nahi zutelako eta ni ere leku hartatik jokoari begira eroso sentitzen nintzelako. Adinean aurrera egin ahala, gainera, umetik nerabera, pentsamenduak eta ametsak katigatzen hasi zitzaizkidan gogoan. «Hik, Makatza, atezaina izan behar duk derrigor!», esaten nion nire buruari. Arrazoiak zerrendatu eta paper puntta batean idazten nituen:

- Gotorleku izandako kale-baserri batean jaioa. Atezain izateko ez da jaioleku hoberik.
- Aingeru Zaintzailearen egunean jaioa. Martxoaren lehenean. Horrek zerbait esan nahi du.

- Hondartza etxetik 220 pausotara. Bertan bertan. Hondartza baino toki hoberik ez da lurrera jauzi egiten ikasteko.
- Mutil garaia nator. Gelakide gehienak baino altuagoa.
- Lagunek atezain ona naizela esaten dute. Baina ez naiz fio. Akaso lagunegiak dira hori esaten didatenak.
- Nahi dut atezaina izan.

Azken puntu hori ezabatu egiten nuen idatzi orduko. «Nahi nahi ez duk nahikoa. Egin egin behar duk» zen gure aitaren esaldi kuttunenetarikoa. Azken puntua, beraz, ezabatua. Gainera, nire burutazio eta ametsen berri neuk bakarrik nekien. Nire ametsak lagunei kontatzeak lotsa ematen zidan. Harroskotzat hartuko ninduketeen; aitari alferrik zen hitz-erdirik esatea, beretzat lana, lana eta lana besterik ez baitzen munduan, eta gainerakoak txoro-jolasak; senideak arrebak nituen lauak eta ni baino umeagoak denak... Eta amak, entzun entzungo zidan amak, baina... Ez nintzen reglamentuzko baloi baten jabe eta nola izango nintzen atezain!

Ernetzen hasi ahala, neuk agintzen nion nire buruari atezaina izateko grina hura uxatzeko. Ezin, ordea. Ezin-besteak kokatu ninduen atea ez zen atepe hartan. Eroso sentitzen hasi nintzen gero. Eta denborarekin munduari handixe begiratu nahi niola atera nuen ondorioa. Atezaina han egoten baita, bakarrik, askorentzat ikustezin, batik bat baloia zelaiaren beste muturrean denean. Baina berak, bere

ikusezintasunetik zelaia zabal-zabal ikusten du. Saetera batetik begiratzearen antzekoa da atezaina izatea.

Amets egiteari utzi egin behar niola erabaki arren, atezain jokutzen nuen eskolako patioan, hondartzan, hondartza gaineko Munoan... Eta —nik esatea ongi ez dagoen arren— gero eta hobea nintzen. Seguraski, inork nondik zetorren ez zekien laguntza izaten nuelako. Neuk ere ez, egia esan. Erdiraketa arriskutsuren bat zen bakoitzean, entzuten nuen, une juxtuan esana, Miako baserritarraren oihua:

—Makatza! Zapelatzak txita bezala, rau!

Ahotsak agindu eta nik egin, oso gol gutxi sartzen zizkidaten. Nire sekretua zen hori. Nire-nirea. Kontatuta ere, inork ez zidan sinetsiko. Gutxien aitak. «Zer zapelatz eta ze txita? Kendu itzak txori horiek burutik» esango zidakeen, barruan nerabilenaren laurdenik ere kontatu izan banio.



## IV. ATALA

Koskortzen joan ahala, etxeko lanetan lagundu behar izaten nuen. Aitari Lanpardo deitzen zioten mendi baten inguruan geneuzkan lursailetara laguntzen nion. Izan ez ziren gureak. Lurren jabea azpeitiar bat zen, nik ezagutzen ez nuena. Baina aitaren kargu zeuden. Eta handik ateratzen genuen bizimoduaren zati bat. Gustura aritzen nintzen belarretan-eta, baina jolaserako denbora kentzen zidan aitari lagundu beharrak. Jolaserako eta futbolerako.

Etxean bertan ere izaten genuen lana. Animaliak anai-arreben kontua izaten ziren gehienetan. Eta enkarguak ere bai. Eta ni txahalen bat edo zerria hil eta haren puskak herriko Kooperatibara eramateko irrikan egoten nintzen. Handik bueltan sakela beteta ekartzen nuen, eta etxean laguntzen ari nintzen ustea indartzen zitzaidan.

Bazen, ordea, beste enkargu bat atzerantz eragiten zidana. Ume-umetan ez. Baina bai gerora. Etxez etxe ibiltzen zen Jesusen Bihotzaren kapila. Etxe bakoitzean astebete edo. Jesusen irudi bat zen, bi arrabetekoa ez zena, egurrezko

kapila batean sartua, ate erdibitua nahieran ireki eta itxi egiten zitzaiola, gako txiki baten bidez. Eta burdinezko helduleku txiki bat, etxez etxe errazago eramateko.

—Hauxe pena! Iritsi da Jesusen bihotza Rosarionera eramateko eguna! —esaten zuen amak, triste.

Benetan hartzen zuen min Jesusen Bihotzaren irudiari agur esatean. Oso zen fededuna gure ama. Gure etxean zegoen bitartean, ez zitzaion Jesusi kandela pizturik faltako aldean. Eta aspertu ere ez zela aspertzen esango nuke, irratia-aren ondo-ondoan jartzen baitzuen amak, mundu hone-tako berriak ere ikas zitzaizkan, edo.

Ama tristetu egiten zen eta ni amorrarazi. Banintzen aski mutiko tantaia enkargu horiek egiten ibiltzeko. Barregarri geratuko nintzen etxetik etxerako bidean kapilarekin ikusten ninduten herriko beste mutikoen aurrean. Lotsa ematen zidan pereza baino gehiago. Hala ere, amak kapila santua altxortzat zeukala jabetuta, ez nuen inoiz indarririk bildu ezetz, ez nintzela joango esateko.

Gainera, denborarekin, bi lotsa-klase korapilatu zitzaizkidan dioxosozko kapilaren kontuan. Beste mutikoen zer esangoak gero eta gutxiago kezkatzen ninduen; Rosarionean kapila hartzeko atea nork irekiko zidanak, ordea, gero eta gehiago. Etxeko alaba Begoña zen, ni baino urtebete edo bi zaharra-go. Elkarri zeharka begiratzen genion kalean gurutzatzean nik hamabi-hamairu urte egin nituenerako. Neska hura ikustean, aztoratu egiten nintzela ohartzen hasia nengoen. Berak irekitzea baino nahiago nuen amak atea zabaltzea.

Toteldu ere egiten baintzen urduritzean. Eta «Jesusen Bihotzaren kapila» totalka esatea da izan daitekeen gauzarik barregarrienetakoa.

Ez amak, ezta Begoñak ere. Aita neukan zain, etxeko atean ezkaratzeko aldaba-hotsa entzunda.

—Jesusen Bihotzaren kapila... —esan nion kutxa luzatzea-rekin batera, inongo totalik egin gabe.

Hartu zidan. Baina ez zirudien fede kontuek gehiegi axola ziotenik. Bestelako hizpide bat atera baitzidan, nik espero ez nuela.

—Joan zen igandean plaiarioak jokatzeko hintzen inondik ere...

Baietz erantzun nion. Lehen partida genuela. Urteko lehen partida hondartzako txapelketan.

—Hamar bat minutuz zuei begira egon ninduan malekoi-tik. Zer egin zenuten azkenean?

Irabazi egin genuela erantzun nion. Eta harrotasun puntu bat sentitu nuen, betetasun bat, galtzean nekez sentitzen dena. Eskatu gabeko azalpenak ere parrastadan irteten zitzaizkidan. Bost eta bi. Antonianoko talderik onentsuenaren aurka. Gainera, aurkariak gu baino urtebete zaharra-goak zirela gehienak. Eta galtzen hasi ginela, baina... Nire erretolika eten egin zuen Begoñaren aitak.

—Atezain jokatu al huen hasi eta bukatu?

Baietz nik. Ea gustatzen zitzaidan. Baiezkoa berriz ere. Buruari hazka egin zion.

—Futbol dexente ikusitako nauk ni eta esango niked, Makatza, atezain izateko traza guztiak dituala.

—Ez dakit —erantzun nion apal.

—Konturatu ninduan erdiraketa guztietan oso ziur irteten haizela eta baloiak ez diala eskuetatik ihes egiten...

Ez nion deus erantzun. Zer esan behar nion, Miako baseritarraren kontu hura? Neu ere zalantzan hasia nintzen ordurako, inoiz entzun nuen ala nire barne-ahotsa baino ez zen.

—La Sallekoa izango haiz, baina ez haiz sailekoa —bota zuen epaia.

Ez nion ulertu zer esan nahi zidan. Eskerrak eman eta saltoka jaitsi nituen etxe zahar hartako egurrezko eskailera bihurriak. Ilusioa egin zidaten Begoñaren aitaren hitzek. Pox bat sentitzen nuen barruan kanporatzen ez nekiena. Konturatzen nintzen zurrunbilo batean sartuta nengoela. Oraintxe egiten zitzaizkidan atezaina izatearen ametsak puztu, eta oraintxe hustu.

Igerian herriko moila txikian ikasi nuen, beste gehienek bezala. Han, mutiko zaharragoek aholku bat ematen ziguten. Zurrunbilo batean sartzen baginen, irten nahian indarka egiten ez hasteko. Alferrik zela. Ez genuela indarrak akitu baino egingo. Horrelakoetan egin behar dela



zurrunbiloaren indarrak irents zaitzan utzi, gero indar berak botako baizaitu kanporantz. Horixe egin nuen nire nerabe zurrunbilo harekin. Irensten utzi. Atezain segi eskolan, lagunekin kalean, Munoan, hondartzako lehiaketan... Natural-natural. Besterik gabe.



## V. ATALA

Itsasoa. Zinema. Barberia. Gehienok ezagutu ditugun hiru leku. Nire kasuan, ordea, hiru lekuak elkarri lotuta zeuden oso. Hiru leku horietan egiten nuen ametsik gehien, nahi gabe ere.

Itsasoa zabala da. Bai gure herrian, behintzat.

Itsasoa beti desberdina da. Oraintxe dago marea goi-goian, eta oraintxe behe-behean. Gure herrian, behintzat, bai.

Itsasoa sarbidea da. Eta irteera ere bai. Etxezuloa nintzen ni, baina egunen batean kanporantz alde egiteko aukera ere ez nuen gutxiesten. Inguruan ez zitzaidan deusik falta, baina gustuko nuen Munoaraino joan, eta irudimenari hegan aske uztea. Eta bizimoduak Mexikora eramango banindu? Indian bukatuko banu? Edo Britania Handia ezagutzeko parada baneuka? Itsasotik irits zitekeen edozein leku nuen kuttun. Ez dakit zergatik.

Zinemak izango zuen zerikusia, seguraski. Gure herrian baziren hainbat zine-areto. Trumoiianekoa, Antonianoetakoa,

Modelo dotoreagoa... Handik edo hemendik —enkar-guen ordainetan jasotako eskupekoak gehienetan— txanpon-pizarren batzuk lortzen nituen beti zinemara joateko. Bengalako tigreak eta Sandokanek txunditu egiten ninduten; grazia egiten zidaten Mario Moreno Cantinflasen tximinokeriek; miresten nuen Robin Hood, oiha-neko kattagorri hura, asmo onez beti, pobreei emateko aberatsei kendu ziena...

Izaten nuen zinemara joateko gutizia bat, nire adinkideek izaten ez zutena. Haiek, NO-DOa hastean txistuka ekiten zioten. Ez zituzten bost minutu galdu nahi izaten filmean zain. Neurri handi batean ulertzen nituen, oinekin eta eskuekin erritmoa eramanez kexuka hasten zirenean: «¡Que empiece ya, que el público se va, la gente se marea y el niño se meal!». Ni ere gogaitu egiten ninduten Francisco Franco Espainako Caudilloari buruzko irudi eta berri haiek. Ia beti urtegiak inauguratzen azaltzen zen gizon txiki bibotedun hura. Zinema-aretoko iluntasuna lagun, sarritan norbaitek baliatzen zuen unea oihu egiteko:

—Hemen bazeukagu nahikoa ur. Ardoa behar diagu guk, ardoa!

Eta jendeak ia Cantinflasekin adina barre egiten zuen ateraldia entzunda. Nik, NO-DOa ere adi ikusten nuen, tarteka futbol-partiden berriak ematen zituztelako. Brasildarren irudiren batzuk tarteka. Uruguaitarrenak. Edo Portugaleko Benfica eta Espainiako Real Madrilenak. Irentsi egiten nituen begiz talde horietako atezainen irudiak. Beti aurkitzen nuen zeri erreparatu. Brasilgo atezai-

nak nola ateratzen zuen ateko sakea. Edo Uruguaiakoak zenbat imintzio egiten zizkien bere atzelariei ongi koka zitezten. Edo... Real Madrileko atezainaren altuera kalkulatzeko saiatzen nintzen.

—Ezin dik hain txikia izan! —egoskortu zitzaidan behin Erramun, reglamentuzko baloia besapean zuela.

Nik, ordea, ongi ikasiak neuzkan datuak.

—Baietz, motel! 1,72 edo 1,73 izango duk gehienera ere.

—Nola izango duk ba, 1,72 Juanito Alonso? Berak irabazi dik aurten Zamora saria!

Banekiela nik. Eta banekiela Hondarribian jaioa zela ere. Eta gustatzen zitzaidala baloia ukabilez urruntzeko zuen modua. Baina 1,72 edo 1,73 zela altueraz, ez gehiago.

—Hago isilik, motel! Nola dakik hik hori?

—Neure begiz ikusi diat. Askotan azaltzen duk NO-DOan.

—Bazekiat. Ikusi izan diat nik ere. Baina zinemako irudietatik ez zagok zenbat neurtzen duen asmatzerik! Hi herorri bahaiz dagoeneko 1,72!

Banintzen, bai. Hamabi urte nituen, eta 1,72ak ongi gaindituak. Nire logelako horma-ertz bat zen lekuko. Urtebete baino gehiago neraman hilero-hilero nire altuera neurtuz. Lapitzarekin marka bat egiten nion hormari aldiko eta ase-beterik ikusten nuen nola ari nintzen hazten. Nire sekretua zen hori ere. Nire-nirea. Ez nion inori kontatu nahi izan

neurketen zeremonia hura. Burutik egin al nintzen esango zidaketeen gurasoek. Arrebak, berriz, txikiegiak ziren nire buruaren arrasean erregela bat ipintzeko, eta erregela non, lapitzarekin marka han, egiteko. Beraz, neu moldatzen nintzen neure burua neurtzeko. Garaia izan nahi nuen. Etengabe hazi. Atezain garaiak errespetua jartzen du... Baina Juanito Alonso ez zen garaia eta bazekien geratzen eta agintzen.

NO-DOarena aipatu nion Ramoni. Banituen, ordea, nire kasa ateratako datu gehiago Juanito Alonsoren altuerari buruz, barberiara egiten nituen atzera-aurrerei esker.

Itsasoa. Zinema. Barberia. Nire ametsak legamitzeko hirukia.

Ileapaindegira emakumezkoak joaten ziren. Gu, gizonetzkoak, barberiara. Eta sarri-sarri. Ilea txukun ibili behar izaten zen eta bizarra eginda. Maiz bidaltzen ninduen barberiara amak, behin hamabi-hamairu urte egin nituenean. Eta zerbait bitxia gertatu zitzaidan. Haseran gogoz kontra joaten nintzen. Banuen kopetaren gainean kiribil bat oso nirea, berezia. Hura mozteak min ematen zidan. Hura gabe ez nintzen guztiz neu. Baina barberian zer zegoen deskubritu nuenean, aitzakia bila ibiltzen nintzen hara joateko, nahiz ilerik moztu nahi ez izan.

Aldizkariak egoten ziren barberian, saski batean pilatuak, txandaren zain zeudenek denbora errazago eman zezaten. Eta aldizkari horietako batzuk kirol-aldizkariak izaten ziren. Aldizkari horietan, aldizkari horitu ere baziren haietan, bazen niretzat altxor bat. Atezainen argazkiak.

Zinemak ematen ez zidan aukera bat eskaintzen zidaten argazkiek. Zinemak ez du inor atxikitzen; argazkiak, ordea, preso harrapatzen du unea. Ni une horiek barneratzen saiatzen nintzen. Athletic-eko atezainaren oinak penalti bati aurre egiteko unean; Botafogokoaren besoak baloi bat magalean biltzean; Benficakoaren bisera jartzeko modua eguzkiak itsutu ez zezan...

Begirada aldizkarietako argazkiei josia, azkarregi iristen zitzaidan ilea mozteko unea.

—Makatza, hire txanda. Lo al hago? —egiten zidan oihu Euxebio barberoak.

Eta nik, aldizkaria gogoz kontra utzi, eta aulki berezi hartara jo behar izaten nuen, kopeteko kiribil nire-nire hura nola desagertzen zen ispiluan ikustera.

Nahikoa ume artean, tranpatxo bat ere asmatu nuen, barberiara sarri-sarri joan eta ilerik ez mozteko. Zelatan ibiltzen nintzen kanpotik ia aski jende bazen barruan. Bazela ohartzen nintzenean, sartzen nintzen ni, zuzenean txandaren zain zeudenen eserlekuetako batera jo, aldizkari bat eskuetan hartu eta hari begira egoten nintzen. Nire txanda iritsi baino lehen, ez neraman eskumuturreko balizko erloju bati begiratzeko imintzioa egin, eta altxatu eta alde egiten nuen. «Barkatu. Joan beharra daukat. Amak esan dit zazpietan etxean egin behar dudala enkarguak egiteko».

Bizpahiru aldiz egin nuen jokaldi bera. Azkenengoan, aldizkaria saskian utzi eta atea zeharkatzera nindoala, dei egin zidan Euxebiok.

—Hi, Makatza!

Sustoa hartu nuen. Ikaratu ere egin nintzen. Konturatu zen barberoa zer egiten nuen eta errietaldia zetorkidan. Ez zen, ordea, horrelakorik gertatu. Euxebiok, irribartsu eta eskuetan zeuzkan goraizeak utzi gabe, aldizkarien saskirantz jo zuen. Kirol-aldizkari pare bat apartatu, eta irribarre batez luzatu zizkidan.

—Eraman etxera. Eta ekarri bueltan bihar edo etzi.

Ez dakit eskerrak eman nizkion ere. Urduri bezain pozarren jo nuen, korrika, kalean barrena. Hurrengo eguerdian, eskolatik irten eta lehenengo lana aldizkariak itzultzea izan zen.

—Bihar edo etzi esan nian —erantzun zidan barberoak—. Bihar edo etzi esan nian, baina ez daukak hain estua izan beharrik. Hau bueltatu etzi edo etzidamu.

Eta bi aldizkariak hartu, eta beste bat eman zidan, itxurarengatik iritsi berri-berria. «Eskerrik asko» bat irten zitzaidan oraingoan. Aldizkari berria eskuetan, Munoara jo nuen, itsasoari begiratzera. Atzendu egin nahi nuen argazki berriak ikustearen unea. Atzendu zirrara. Afaldu ondoren, oherakoan, emango nien begiratu bat, eta lokartuko nintzen hango eta hemengo atezainak esku-gogoetan nituela.

Itsasoari begira, jabetu nintzen zorte handiko mutila nintzela. Banuen familia bat, nirea, oinak lurrean edukitzen laguntzen zidana. Eta banuen beste familia bat ere, herritarrena, Miako baserritarra, Begoñaren aita, Euxebio barberoa... ametsak hauspotzen laguntzen zidana. Ez nuen deus falta.



## VI. ATALA

Ohean etzanda, aldizkarietako argazkiei begira, ohartu nintzen baietz, artean zerbait falta nuela eta haiek lortu arteko bidea luzea izango zela.

Gai nintzen, begiratuaren begiratuz eta konparatzearen konparatzez, Juanito Alonso atezain handiaren altuera kalkulatzeko. Baina hiru gauza falta zitzaizkidan. Hiru, hauek ere.

Area, karea eta sarea. Hoskideak hiruak. Ezin zen kasualitate hutsa izan. Sinistera iritsi nintzen atezain postua euskaldunontzat egina zela eta hitzak ere, hain gutziatsiak beti, ados jarri zirela hori onartzeko.

Argazkietan azaltzen zen area, azaltzen zen karea, azaltzen zen sarea. Ni, ordea, horietara iritsi gabea nintzen. Eta premia sentitzen hasia nengoen.

Area atezainaren eremua da. Eta area noraino iristen den ez dakizunean, ez da erraza ezeri neurria hartzea. Neurri kontuetan, berriz, aita nuen maisu. Behin, mahai puskatu batentzat hankak egiten ari ginela —futboleko «oinak

egitea» jolas askoz politagoa zen ere— neu tematu nintzen zurezko hanka bat zerrarekin mozten. Moztu nuen. Presa handiegiz nonbait. Hasi ginen nik moztutako hanka mahaiari itsasten eta luzeegia zen. Ez zitzaion ongi egokitzen mahaiari. Aitak, mila lanetan trebatutako gizon hark, esaldi borobil bat bota zidan, inoiz ahaztuko ez nuena:

—Bitan neurtu eta behin ebaki. Hori egin behar duk. Behin bakarrik neurtzen baduk, arriskua zagok bi alditan moztu behar izateko!

Ikasgaia neregianatu nuen. Baina horrek ez zidan futbole-rako balio. Ez, behintzat, arearik gabe jokutzen genuen garai hartan. Zapelatzak txita bezala, rau! Bai. Baina noraino jo nezakeen? Zer zen neurtu behar nuena? Gure herriko hondartza Kantauri itsasertz osoko hondartzarik luzeenetakoa da. Bi kilometro eta berrehun metroko luzera du, eta zabalera, berriz, mareak finkatzen du. Itsasbeheran, oso da zabala. Ederki estutzen da itsasgoran. Oso eremu handia da oro har, ordea, eta futbolerako mugatu egiten genuen, oina arrastaka arrastoak eginez. Baina arearik ez genuen zehazten. Askotan sortzen ziren istiluak. Gehiegi irten zela atezaina. Baloia eskuaz ukitu zuela ez zegokion lekuan. Ez zegokion tokian? Ez zegoen-eta zegokion tokirik! Area bat amesten hasi nintzen. Area bat niretzat. Etxe bat. Nirea. Noraino bai eta noraino ez jakin egin nahi nuen. Noraino eskuaz eta nondik aurrera hankaz. Neurtu, aitak irakatsiaren arabera, zenbatetan behar hainbeste aldiz, gero ebakera zehatza izan zedin.

Karea ere faltan sumatzen nuen. Zirrara berezia sortzen zidan belarretan marrazturiko kare zurizko arrastoak. Zinemako NO-DOetan edo aldizkarietako argazkietan beti ageri zen karea futbol-zelaietan. Nik, zelaian karea ikusteko, herriko Aritzatalde futbol-zelaira joan behar izaten nuen. Eta han, kare arrastoek niri zirrara bezala, txantxetarako gogoia sortzen zion nonbait, gure herriko nagusi jendeari. Batik bat, ertzetako lerroak zuzenak izan beharrean, sigi-sagan eginak sumatzen bazituzten.

—Gaur Baltaxarri pultsuak huts egin zio! —bota zuen batek.

—Lineak marraztean, bai. Baina Azken Portuko tabernan baxoerdiak hartzean ez, ordea! —emango zuen epaia beste batek, eta denek barre egin zuten. Aldrebes egingo balu sikiera, lehenengo marrak egin eta gero baxoerdiak hartu. Baina ez. Beti lau baxoerdi hartuta etortzen duk zelaia pintatzera eta obra ederrik egiten ziguk!

Nik miresmenez begiratzen nion Baltaxarri, akaso umezaroa hain urrun ez neukalako, eta herritar batek Errege Magoetariko baten izena izateak bere xarma bazuelako. Gainerantzean, oso gerora arte ez nuen jakin behar bezala estimatzen, herriko gazteek kirola egin zezaten bolondres aritzen zen jende haren lana.

Sarea ere faltan sumatzen nuen. Argazkietako atezain guzti-guztiak karratu txikietan barna ikustera ohituta nengoen. Ez zen atearen atzetik ateratako argazkirik, kamera eta atezainaren artean sarerik ez zuenik; ez zen atearen aurretik

ateratako irudirik, atezainaren atzean sarerik gabekorik. Eta ni, hondartzan artean, sarerik gabe jokatzera behartuta nengoen. Pentsa! Zutoinak jartzen genituen, baina langarik ez. Langa bi zutoinen arteko soka bat izaten zen, partida aurrera joan ahala sarritan erdi parean jaitsi egiten zena, atezainon mesedetarako. Edo, maliziaz, norbaitek beherrantz tirako zion, atea txikituz eta golak eragotziz. Nik ez. Ez nintzen tranpazalea. Zinez diot. Nik area bat nahi nuen niretzat. Karez ongi mugatutako area. Ate bat, zutoinak eta langa zituena. Eta sarea.

Sarea, niretzat, hotsa da. Hotsa eta mina. Ez nuke jakingo beste hizkuntzetan baloiak sarea jotzen duenean ze hots ateratzen duen zehazten. Euskaraz, bai. Euskaraz, zast! egiten du baloiak sarea jotzean. Zast! Zastada bat da atezainarentzat hots hori entzutea. Min ematen dio erraietan. Baina zastada hori entzutearen poderioz, ikasten du atea hobeto defendatzen. Ahalik eta gutxienetan min hartzeko. Saihetsetan labana nola sartzen zaion sentitu nahi ez duelako.

Hots itsusia du sareak atezainarentzat. Zast! Eta zastadarik handiena sentitzen du, gainera, baloia uso txuri-beltz baten gisan saretaratzen denean. Mila modu baititu baloiak sarea musukatzeko. Bortitz joko du batzuetan, eta atezainak ez du aparteko errurik sentituko. Baina badira baloi batzuk uso txuri-beltzak, loratuta, ama-ama saretaratzen direnak. Eta horietan atezainak pentsatuko du zerbait gehiago egin zezakeela.

—Makatza, zapelatzak txita bezala, rau!

Ez zitzaidan burutik joaten esaldia. Hasia negoen sakoneko esanahia aurkitzen. Zapelatza izan behar nuen derrigor. Txita oro nireganatu. Bestela, uso txuri-beltza bihurtu, eta sareetan eroriko ziren.



## VII. ATALA

Zineman ezagutu nuen Edmundo bat. Edmundo Dantés. Monte Cristoko Kondea. Gogo biziz bizi izan nituen bere abenturak. If irla. Presondegia. Tunela. Ihesa. Itsasoa. Traizioa. Injustizia. Mendekurako grina... Gaztetxotan ikusi nuen eta ikaragarri gustatu zitzaidan. Baita nere lagunei ere.

Buruz ikasi genuen izen hura: Edmundo Dantés. Vista Alegreko mendi-parkera askotan joaten ginen jolasera. Hango arbola askotarikoen eta kanaberadi mardulen artean, zineman ikusitakoak berritzen saiatzen ginen, ezkutaketan, ezpata-borrokan, lianaz liana jauzi eginez, arboletan oholezko txabolak eraikiz... Nahasi egiten genituen begi-belarrietatik sartu zitzaizkigun heroi guztiak gure jolasetan. Sandokan, Jabato, Roberto Alcazar, Pedrín, Tarzan, Cantinflas... eta Edmundo Dantés. Nik, aukera izanez gero, Monte Cristoko Kondea izan nahi izaten nuen. Ez zen gutizia soila. Beste Edmundo bat ezagutu berri nuen, eta biekiko nuen halako miresmen puntu bat.

Ezagutu berri nuen Edmundo ez zen irla batean preso bizi. Etxetik gertu bizi zen, kale bat jiratu, eta Santa Marinako ermita inguru hartan. Kanean ikusten nuenean, begira geratzen nintzaion. Gizon garaia zen. Egokia. Dotorea. Aitarenen lagun batek azaldu zidan behin zer zen dotorezia.

—Hik ba al dakik, Makatza, elegantzia zer den? Ez duk Parisen bezela, arropa lustrosoak jantzita ibiltze hutsa. Beste gauza bat duk. Duk, lagunarte batera iristen haizenean, bilera bat, festa bat, hileta-elizkizun bat... dena delakoa, iristean inor ez konturatzea. Eta alde egitean denek hire falta sumatzea.

»Ez diat nik asmatu, e! Irakurri egin diat! —erantsi zuen, esaldia ulergaitza gertatu zitzaidala aurpegieran sumatzean.

»Bestea baino hobea duk hori! Iristean nabarmendu eta alde egitean faltan sumatzen ez denarekin, erne. Harroputza, seguru-seguru! —gaineratu zuen, hartara zerbait behintzat ulertuko niolakoan.

Ez nentorren guztiz bat aitaren lagunarekin, Edmudori zegokionez. Edmundo iriste hutsarekin nabarmentzen zen nere begietara. Kanean eta, batik bat, zelaian. Edmundo baitzen Club Deportivoako atezaina. Gauza handia. Izan zitekeen handiena niretzat hamabost-hamasei urte nituen garai hartan.

Edmudori erreparatzen nion Aritzbatalderra irteten zen bakoitzean. Nola jartzen zen atepean; nola janzten zuen bisera udan eta nola neguan, eguzkia oso goiz erortzen den



urte sasoian; nola egiten zituen beroketa ariketak; nola agintzen zien defentsako jokalariei, non kokatzen zen taldea erasoan ari zenean... Dena zitzaidan berri samar eta denak ematen zidan atentzioa. Baita belaun-babesak janzteko zuen ohiturak ere. Aritzbatalden belarra ez zen beti belar. Askotan, lokatza izaten zen. Eta udaldera, eguzkiak indar hartzen zuenean, zokorra. Ez zuen Edmundok belaunik urratzen. Dotoregia zen horretarako. Plácido Mugikaren hiztegian ikasi nuen bigarren adieran zen makatza. Sobrio, alegia.

Edmundori begira, asko ikasi nuen neure buruari buruz. Halakoxea izan nahi nuen. Baita janzkeran ere! Beti beltzez janzten zen Edmundo. Goitik behera. Beltzez jantziko nintzen ni ere egunen batean, Aritzbatalden jokatzeko zoria izanez gero. Askok pentsatuko zuten Jaxin atezain errusiarrarengatik zela. Baina ez. Jaxin aldizkari bateko argazkietan baino ez nuen ikusi ordurarte. Melbournen ageri zen eta ez zegoen atepean, podiumean baizik, Olinpiar Jokoetan lorturiko domina paparrean zintzilik zuela. Edmundo nuen hurbileko ispilu, ez Jaxin. Eta, gainera, ni ez nintzen armiarma. Ni, zapelatz izateko bidean nindoan. Zer da hobia atezain batentzat, zortzi hanka ala bi hatzamar on?



## VIII. ATALA

—Ze Club eta clubondoko? Ez al daukak lehenago lanik etxean eta eskolan?

Espero nuen bezala erantzun zidan aitak Club Deportivo-tik ea gazteen taldean jokatu nahi nuen galdetu zidatenean. Baietz erantzun nien aitaren batean, nahi nuela herriko gazteen taldean jokatu.

Nahi izango ez nuen ba! Herriko gazte hautatuek baino ez zuten jokatzeko Club Deportivo. Nor izateko era bat zen, noraeza nagusi den adin horretan. Eskolan edo hondartzan edozeinek joka zezakeen. Clubean, gutxi batzuk baino ez. Clubean uniformea ematen zuten. Eta futbolerako botak. Eta, akaso, txandal bat ere bai. Clubean jokatzeko zuten mutilekin neskak amultsuagoak ziren. Irribarre egiten zieten eta errazago geratzen ziren haiekin berriketan. Dantzaldietan, berriz, konturatuta nengoen neskek Clubeko jokalariei maizago ematen zieten baiezkoa ez zirenei baino. Eta ez zen atezain izatea garai hartan erakartzen ninduen bakarra...

Gure herria veraneantez betetzen zen udaldian. Bi hilabete luze pasatzera etortzen ziren familia dirudunak. Aita, ama, umea eta neskamea. Neskameei bugati deitzen genien herrian, ume-kotxeak gidatzen pasiran ibiltzen zirelako, eta Bugati oso purian zebilen auto-marka bat zelako. «Hondartzen erregina eta erreginen hondartza» zen gurea, etxetik 222 pausotara neukan hura, Isabel II udak Narroseneko Jauregian pasatzen hasi zenetik. Handiki jendeak batek nora besteek hara egiten du, eta gure herria bihurtu zen aristokrata eta dirudunek uda pasatzeko leku. Eta handikiekin iritsi ziren hotelak, ostatuak, tabernak... eta dantzaldiak. Udan, hiruzpalau astean. Gure etxeak Musika Plazara ematen du. Eta askotan egoten nintzen leihotik bailables deitzen zitzaien haiei begira. Orkestina onak eta jendea trumilka dantzan. Musika, berriz, azken garaikoa beti. Bitxi sentitzen nuen nire burua XVI. mendeko eraikin batetik, XX.aren bihotz-bihotzera begira. Baina begiraldi haiei esker banekien, Clubeko mutilek kalabaza gutxiago jasotzen zituztela besteek baino, izan herriko neskekin edo saiatu kanpotarrekin. Halere, egiari zor, hori zen gutxienekoa. Ordurako kaskoan sartuta neukan atezaina izan nahi nuela. Hori zen funtsezkoa.

Belarraren usaina gustuko nuen futbol-zelaian. Eta liniementua eta puruarenek bat egiten zutenean, azala pinportatzen sentitzen nuen. Usainek bereizten zituzten niretzat jolasa eta jokoa. Eskolako usaina (lapitz, klarionarena) nabaritzen zen eskolako patioan futbolearen aritzen ginenean eta kresalaren usaina eta arroketako algena, hondartzan jarduten genuenean; kalean, berriz, usain nahasia, orain-

txe ikaztegikoa gure etxetik gertuan eta oraintxe makailau lehorraren kiratsa, taberna sarreraren bat hurbil bazen. Clubean hastea usainez aldatzea zen. Belarra-purua-linimenteroa. Jolasa zen artean, baina ez lehen bezain jolas. Joko bihurtzen hasi zitzaidan atezain lana.

Aitaren batean erantzun nion baietz Clubean jokatu nahi nuen galdetu zidanari.

—Atezain ondo moldatzen haizela esan zidatek, Makatza! Hasi nahi al huke gurekin Clubean? Badakik, ihaz maila galdu genian eta aurten berriz igotzeko denaren laguntza behar izango diagu. Hire hurbileko lagunaren batzuk baiezkoa eman zidatek.

Neuk aitaren batean eman nien baiezkoa. Beste aitarena, ordea, falta zen. Eta banekien sudurra muzinduko zidala, eta bekokia belztuko. Ni nintzen etxeko mutil bakarra. Nire zangoak eta nire besoak preziatuak zituen aitak. Mando lanerako batik bat. Ez zen bere buruan kabitzen denbora «txorakerietan» galtzea, kale-baserri batean lana inoiz bukatzen ez den zerbait zenean.

Bere purrustaldia ongi eramaten asmatu nuen. Ez nion aurre egin. Ez nion nire ametsen berri eman. Are gutxiago aipatu nizkion zapelatzaz eta txitaz mintzo zitzaizkidan barne-ahotsak.

—Txorakeriak baino ere okerragoa duk hori! Txorikeriak! Hainbeste handiko mutila egin eta hain juizio gutxi!  
—esango zidakeen seguru-seguru.

## MAKATZA

Hitz eman nion Clubeko entrenamendu eta partidengatik ez nuela etxeko lan bakar bat ere egin gabe utziko. Eta ikasketetan, ordurartean bezala, ahalik eta finen ahaleginguko nintzela. Ez zidan baiezkorik esan. Ezezkorik ere ez. Baiezkozat hartu nuen.

## IX. ATALA

Clubeko lehen hilabete haietan atletismorako gehiago prestatu nintzen atezaina izateko baino. Saltaka egitea deitzen diogu gure herrian korrika egiteari. Ba nik saltaka ematen nuen eguna, astea, hilabetea... Eskola-orduak, batetik. Bestetik, etxeko lanak, enkarguak, baratzean laguntza ematea, ganadu-jendea gobernatzeara... eta futbol taldeko entrenamenduak, gainera. Beti presaka eta saltaka nenbilen batetik bestera.

Clubean hasi ondoren ere bazuen niretzat futbolak jolasetik aski. Gogoan dut uda batean ze ziri sartu genien veraneante mutil-koadrila batekoei. Presaka eta korrika ez nenbilen egun bakan horietako bat izan zen. Nire lagunekin ari nintzen hondartzan futboleak. Madrildik edo Zaragozatik etorritako mutil-koadrila batekoak guri begira zeudela konturatu ginen. Erramun niregana etorri eta belarri-ertzero xuxurlaka hasi zitzaidan.

—Hik ez ezak gure tiro bakar bat ere gelditu.

—Zeer? —ulertu ezinda nik.

—Baldar-plantak egiteko! Hik pasatzen utzi baloi guztiguztiak. Golak izan daitezela guk jaurtitako denak!

Bekainak harrotu nizkion. Ez nuen deus ulertzen. Baina egin egingo nuen Erramunek esana, lagun ona nuen eta. Haiek atera jotzen zuten bakoitzeko gola izaten zen. Nik jauzi egiten nuen, baina berandu. Trakets. Oso trakets. Halako batean, partida amaitutzat jo zuen Ramonek. Begi keinu bat egin zidan eta baloia besapean zuela, veranean-teengana hurbildu zen. Ea parte hartu nahi zuten. Baietz. Zergatik ez? Orduan, nire atea seinalatu zuen eskuaz Erramunek. Eta niregana hurbildu ziren bai lagunak, bai Erramun eta bai kanpotarrak.

—No vais a empezar a jugar a futbol con esas ropas. Pero os proponemos una apuesta.

Zeremonia handiz kokatu zuen baloia lurrean. Atepera etorri eta berak egin zituen hamaika urrats, luze samarrak egia esan behar bada, balizko penalti puntu batetaraino.

—Vosotros chutais penaltis y, si Makatza os para la mitad, nos sacais unas cazuelitas de callos en el Manuel Mari.

—Y si le metemos más de la mitad, ¿qué nos pagais vosotros? —galdetu zion haietako batek, nire atezain traza eskasa ikusi ondoren irabaziko zutela sinetsita.

—Los mejores bollos de la pastelería Serras —erantzun zien Erramunek, maltzur, etxeko semea baitzen gozotegian.



Ados jarri ziren. Baina bazen ari-mutur bat lotu gabea. Zenbat penalti.

Une horretan ni nagusitu nintzaion Erramuni. «Veinte» esan nuen ozen. Fidakaitz azaldu ziren madrildarrak, zara-gozarrak edo zirenak zirela. Ea zergatik hogeitabi. Zergatik ez gutxiago ala gehiago.

—Por que desde la puerta de mi casa hasta aquí, hasta la playa, hay exactamente 220 pasos. Lo que equivale a veinte penaltis.

Harrituta begiratu zidaten lagunak. Ez axola veraneanteek. Bost lagunak txandan-txandan jaurti zizkidaten penaltiak. Hamaseigarrenerako hamaika geratuak nituen. Eta hamazazpigarrena ere geratu egin nuen bazen ez bazen. Gustura geratu nintzen ni. Harro Erramun, bere bihurrikeria ongi irten zitzaiolako. Gainerako lagunak barre egiten zuten. Veraneanteek ez zekiten non sartu.

—¡Joder, este es mejor que Alonso! —bota zuen batek.

—¡Y más alto! —erantzun zion beste batek.

—Parecía más malo que la manteca y resulta que es un portero cojonudo —bota zuen, etsia, hirugarrenak.

Cojonudo ez zen guk hitzetik hortzera erabiltzen genuen hitza. Ez artean, behintzat. Ez zitzaidan goxo sartu belarrietara. Ez nekien, hurrik ere, handik urte batzuetara, non eta zenbat aldiz entzun beharko nuen.

Hobea, berriz, hobea ez nintzen Juanito Alonso baino. Altuagoa bai, ordurako. Terneziaz begiraten nien etxeko horma bati bizpahiru urte lehenago egindako altuera-marka haiei. Orain ez nuen aski ez hazteko beldurrik.

Tripak jaten geratu ziren veraneante gizajo haiek. Haien kontura tripakiak jaten bukatu genuen guk, Manuel Marinean. Lagunak, Makatza deitzeaz aspertuta, sagardoak eragindako algaren artean, adarra jotzen hasi zitzaizkidan.

—Equivale deituko diagu hemendik aurrera. Haiek hire geldiketekin geratu dituk jo eta ma. Gu hire erderarekin. Noiz ikasi duk hik equivale esaten?

Egun gutxitako kontua izan zen izengoiti aldaketarena. Baina nik uste baino balentria handiagoa egin izango nuen. Herrian zabaldu egin zen nire penalti geldiketena. Batek baino gehiagok zoriondu ninduen. Ongi sentitzen hasia negoen nire atezain larruan. Mundua ederra da eder-begira eta niri gauzak ongi zihoazkidan. Iruditzen zitzaidan bugatiek ere zehar-begiradaren bat eskaintzen zidatela.

Eta lehen aldiz, aitak ere, «madrileño batzuei adarra ederki jo omen diezue, ezta?» esan zidanean, harrotasun puntu bat sumatu nion esakeran.

## X. ATALA

Ez dakit ziur zergatik atezainaren akatsa kantuarekin lotzen duten. Zergatik deitzen zaio cantada atezainaren akatsari? Hitza ikasi baino lehen, nik ere egin nituen batzuk. Ustez eskuetan nituen baloiek ihes egin; ustez harrapa nintzakeen baloietara iritsi ez; ustez baloia harrapatuko eta aurkariaren orkatila harrapatu... Horrelakoak egiten nituen nik ere. Baina ez genien cantada deitzen. Zergatik deitzen diote cantada? Akaso, atzelariei oihu egin —utziiii!— eta oker egindako kalkulu baten ondoren baloiak sareetan amaitzen duelako...

Kontua da kantua beti gustatu izan zaidala, izugarri. Umetan, nerabetan, gaztetan... kantuzale porrokatua izan nintzen. Eskolako koruan parte hartzen nuen. Parrokiako abesbatzan ere bai. Eta behin edo birritan, Oleskariak taldearekin ere aritua nintzen, norbaiten ordez joanda. Hori ez zen txantxetako gero! Atezaina izan ezean, kantaria izan nintekeela pentsatzera ere iritsi nintzen nire txoro-ametsetan. Oleskariak edozer ez baitzen. Oleskariak zen herriko eta inguruetako otxoterik onena.

Zarautzen ematen zuen uda Fabiola de Mora y Aragónék. Belgikako Errege Balduinorekin ezkondu zenean, Bruse-lan kantuan aritu zirenak Oleskariak zortzikotekoak izan ziren. Ez zuten nire ahotsa entzuteko paradarik izan han. Baina ez nintzatekeen harrituko Fabiolak nire geldiketak ikusi zituela aitortuko balu. Askotan ibiltzen zen herriko malekoian pasiran. Eta veraneante madrildarrei dozena bat penalti geratu nizkien hartan izan zitekeen lekuko...

Niretzat ere talaia ezin hobea izaten zen malekoia edo malekoi gaineko Munoa deitzen genion laugune hura. Neure buruari handik begiratzen ikasi nuen. Han, itsasoaren joan-etorriei begira, egiten nuen nire atezain-lanen ebaluaketa. Zertan asmatu eta zertan huts egin nuen. Zertan hobetu behar nuen eta norengandik ikas nezakeen han erabakitzen nuen, askotan zutointzat erabiltzen genituen tamarindo haien ondoan, atezainaren ospea marearen antzekoa baita. Oraintxe dago goian eta oraintxe behean. Cantada baten gorabehera den dena. Eta haiek nola saihestu ibiltzen nuen beti buruan. Nola zapelatza izan une oro.

Nora ere banerabilen gogoan, Munoatik itsasoari begiratzen nion haietan. Clubean jokatzuz, inguruetako herriak ezagutzen ari nintzen. Azpeitia, Deba, Mutriku, Ondarroa, Hernani... baina lur eremu mugatua eta urria gertatzen zitzaidan. Batik bat, itsasoari begiratzen niolako. Eta itsasoz urrutira hel daitekeelako. Esate baterako, Ameriketara. Banekien han amaitu zutela euren futbolaren jardunbidea ni baino belaunaldi bat zaharragoko futbolari askok. Banekien gerra zibil garaian Euskal Selektzioarekin European

zehir ibili ondoren, Ameriketako hainbat herrialdetan aurkitu behar izan zutela Espainian falta zitzaien babesa.

Itsasoari begira, Ingalaterrara joateko ametsa ere egiten nuen. Zergatik ez Ingalaterrara? Han asmatu zuten futbola. Hango futbol-zelaietako ikusleek beste inongoek baino adoretuago animatzen zituzten taldekoak. Kantuz aritzen ziren eztarria urratu beharrean. Kantuz hartzen zituzten etxeko atezainaren cantadak ere. Ez zen tokirik makurrena, norabait joan behar izanez gero...

Kanariar Uharteetara ere eraman zaitzake itsasoak. Baziren han inguruetako futbolariak Unión Deportiva Las Palmasen ari zirenak. Han ez ziren udako eguzkiaren beldur izango. Hemen, berriz, jakinekoa zen belarrak ontzean aitak ze lantegi eginaraziko zidan.

Munoan biltzen nintzen nire baitara, itsasoari begira. Han jabetu nintzen nire hirutasun santuak, area-karea-sareak, bazuela beste hoskide bat, urruxeagokoa hotsez, baina izatez atezainaren izaerari oso atxikia: bakardadea. Atezaina taldeko bat da. Baina bakarra. Atezainak baino ez dezake baloia eskuz ukitu. Horrek bihurtzen du bakar. Eskuak. Eskuek. Orduan ez nekien handik urte askotara entrenatzaile jakintsu batek ze purrustada egingo zien baloi jabetza esamoldea behin eta berriz, behin eta berriz, zerabiltenei. Baloi jabetzaren hori asmazio burugabea zela bota zuen. Jabetza oinetan sekula egon ezin daitekeela esan zuen. Jabetza, eskuek ematen diotela pertsonari. Atezaina izan daiteke baloiaren jabe. Jokalaria ez. Zapelatzarena

## MAKATZA

esan zidan Miako baserritarrak igual ez zekien futbolaz asko. Bizitzaz dena zekien.

Bakarra izatearen ordainsaria da bakardatea. Ohitu egin beharko nuen bakardadera.

## XI. ATALA

Zapelatzak ez du eskafoiderik. Horixe pentsatu nuen hitz hura entzun nuen estreinakoz. Min hartu nuen. Benetako mina. Aritzbatalden, entrenamendu batean, behartuta jarri nuen eskua lurrian. Krakateko txiki bat zirudiena lesio larria bihurtu zen ordu gutxiren buruan.

Katarro arinen bat sumatzen zigun orduko amak enplasto bat jartzen zigun bularrean. Berbena-belarra ekonomikako suaren gainean berotutako zapi baten barruan. Ez nuen jarri nahi izaten. Baina ama tematu egiten zen. On egingo zidala. Bestela, ez zitzaidala behalakoan pasatuko katarro amorragarri hura. Halakoxe enplasto bat eman zidan Baltaxarrek eskumuturrean jartzeko. Berbena-belarraren orde, lokatza zeraman zapiak barruan.

—Makatza, jarri hau eta bihar berria bezala egongo haiz. Lokatza duk onena hezur-junturak bere onera ekartzeko  
—bota zidan dakienaren ziurtasunez.

Gau hartan jabetu nintzen zelai-ertzetako kare-marrak egiten hobe zela petrikilo lanetan baino. Gau luzea izan zen

nire lehen lesio larriaren ondorengo hura. Minak ez zidan lokartzen uzten, eta horrelakoetan mamuak mamitzen ziren pentsamenduetan. Lehen ere oso argi ez baneukan, akabo aurrerantzean. Ez nintzen atezaina izango. Inork ez zuen gurinezko eskuak eta buztinezko eskumuturrak zituen atezain bat aukeratuko. Ez nintzen baloiari behar bezala eusteko gai izango. Min hartuko nuen heldu bakoitzean. Koadrilako gainerakoek bezala herrian geratu beharko nuen, itsasoa sekula zeharkatu gabe. Begoñak ez zidan begiratu azkenaldian begiratzen zidan modura. Hasi berri nintzen Lanbide Eskolan ere ez ninduten aintzat hartuko praktikak egiteko garaian. Makinek nahikoa jende txangotzen dute, lehendik txangotua makinan jartzeko.

Begirik bildu gabeko gau baten ostean, gosari orduko aitarren hitzek eman zioten errematea nire ezinegonari. Begiratu zion eskumuturrean neraman enplastoari eta labur hitz egin zidan.

—Banenkien nik zer pasa behar zuen. Ez zekiat zeren bila habilen. Heuk ikusi...

Baiezkoa edo ezezkoa baino askoz ere gogorragoa zen aitarren «heuk ikusi...» hura. Gurasoaren baiezkoak poz ematen du. Ezezkoak haserrea sortzen. Baina erabakia norbere gain uzteak noraeza eragiten du. Norberak ikusiko du zer egin. Kinka horretan jarri ninduen aitak goiz hartan. Eta nik, minaren minez, zer ikusi behar nuen? Gorriak! Beltz segitzen zuen goizak argitu ondoren ere.



Club Deportivon jokatzek ze mesede zekartzan banekiela uste nuen. Halako estatusa herritarren aurrean, zaharra-  
goen partidak ikusteko sarrera libre, inguruetako herriak  
ezagutzeko aukera... Beste abantaila bat, ordea, ere ba-  
zuen. Eta ez txikia. Min hartu eta astebetera edo, haustu-  
raren bat izango nuela seguru samar geundenean, Dono-  
siara eraman ninduten Echevarren medikuarengana. Ez  
zen edozein Echevarren jauna. Realaren medikua zen eta  
sona handia zuen. Ongi begiratu zidan eskumuturra. He-  
men ukitu eta han kalka, segituan ohartu zen non neukan  
haustura. Buruari eragin zion ezezkor.

—Pentsatzen nuena. Eskafoideak. Hezur txiki batzuk  
dira. Ez da izan litekeen lesiorik larriena, baina lata han-  
dia ematen du.

Adi nengoen zer entzungo. Pazientzia izateko aholkatu  
zidan. Eskumuturra ongi-ongiri lotuta kontsultatik bagin-  
doazen, galdera bat luzatu zidanean:

—Aizu, gazte. Atezaina izan nahi baduzu, pentsatu pixka  
bat, orain astia izango duzu-eta, espazioa eta denboraren  
arteko harremanaz.

Zer esan ez nekiela geratu nintzen. Laguntzaile nuen Clu-  
beko ordezkariak ere ezulertu aurpegia ipini zuen. Medi-  
kuak azalpenak xehetu zizkidan.

—Guk izan genuen atezain bat, Eduardo Txillida, atezainak  
espazioa eta denbora menpean hartu behar dituela zioena.  
Utzi egin zuen. Hark bai izan zuela atzerabueltarik gabeko

lesioa belaunean! Orain irudiak eginez dabil... Munduak jira asko ematen du. Zaindu eskumatur hori eta batek daki... Egunen batean igual izango zaitugu Realeko atezain.

Eskerrak eman genizkion eta irten egin ginen. Sentimendu nahaspila bat nintzen. Burumakur nindoan. Ulertu nion pazientiarena eta lesio latosoarena. Aldiz, espazioa eta denborarena ez nion zipitzik ulertu. Baina atezaina izandako batek esana zen, eta ulertzen eta nire mesedetan erabiltzen saiatuko nintzen. Poz txiki bat ere baneraman barruan. Askok zekien gizon hark noizbat Realeko atezaina izan nintezkeela iradoki zidan. Hala ulertu uste nion behintzat. Ez zidan ganoragabearen traza hartu. Akaso zerbait ikusiko zuen niregan. Lehenengo aldiz, norbaitek, nonbait, futbol profesionalaren aipamena egin zuen niri begira:

—Hi oraindik Donostian sekula txikitorik hartu gabea izango haiz, Makatza. Goazak Parte Zaharrera —bota zidan Clubetik laguntzaile etorri zenak.

Haruntza bidean, nire kezkek banituen buruan. Eta orain Artera dedikatzen zen atezain haren izenaz ezin nintzen gogoratu.

—Nola esan du izena zuela atezain izandako hark, orain eskulturak egiten dituenak?

Laguntzaileak sorbaldak harrotu zituen.

—Zer zekiat ba nik! Uste diat Edmundo esan duela. Pentsatzen jarrita, xelebrea duk munduko atezain guztiek Edmundo izena izan beharra!

Baxoerdien aurretik gogoratzen ez zenaz ez zen ondoren gogoratuko. Izen hura gogora ekarri ezinik itzuli nintzen ni herrira. Eta espazioa eta denborarenari bueltaka. Zapelatza eta txitarenarekin lotu nuen segituan. Zapelatzak ere denbora eta espazioa aintzat hartzen al ditu txita non-noiz harrapatu erabaki behar duen orduan? Nola daki hainbeste zapelatzak? Senak lagunduko dio hari. Premia eta sena. Direnik-eta bi laguntzailerik onenak. Nik, atezain izateko hainbeste-hainbesteko premiarik ez nuen. Sena, berriz, ez nekien zenbaterainokoa nuen.



## XII. ATALA

Pazientziak ere bere mugak ditu. Nireak, behintzat. «Heuk ikusi...» esan zidan aitak eta ikusi beharrekoa ikusi nuen. Gustura eta eroso sentitzen nintzen herriko futbol-taldean, eta entrenamenduetara joaten segi nuen, eskumuturra igeltsatua eduki arren. Eta behin han, Aritzbatalden, ez nintzen zelai-ertzean eseri eta begira geratu. Taldekide batek tentatu egin ninduen, gainera.

—Makatza, zertara etorri haiz? Eskuan min izango duk, baina hankak sano dauzkak, ezta?

Horrela hasi nintzen atea uzten eta zelaiko jokalaria gisan parte hartzen, lehenengo entrenamenduetan soilik eta gerora partidatan. Ez nintzen bereziki abila hankaz. Besoa antxumaturik eramateak ez zidan, gainera, askorik laguntzen. Baina han ibili nintzen, besteen artean bat gehiago, atepeko bakardadetik urrun. Aste haiek hanka-jokorako abilezia lortzen lagundu zidatela esango nuke. Eta begirada aldatzen ere lagundu zidan jardun berri eta behin-behinekoak. Ez nengoen ohituta atetik kanpo futbola ulertzera.

Ez nik nahi bezain azkar, baina sendatu zen eskumuturra. Atepera itzuli nahi nuen galdetu zidan entrenatzaileak. Nahiko ez nuen, ba! Nire ametsetan ez nuen neure burua arean baino ikusten. Itzuli nintzen. Eta partida on mordoxka katigatzeko zoria izan nuen. Gorputza lehen baino eginagoa neukan. Eta buruari hainbat buelta eman izana mesedetarako zela nabarmendu zen. Konturatzen nintzen jendeak gero eta miresentan handiagoz aipatzen zuela nire izena. Herritik kanpo ez, seguraski, baina herrian bertan bai.

Lanbide Eskolako irakasle hark ere bazuen —nork jakin nondik nora!— nire atezain-jardueraren berri. Lanbide Eskola zen gure herriko gazteentzat ofizio bat ikasteko era. Han ez zen ume-jolasik izaten. Han, inguruetakotailerretan lanean hasteko doitzen zuten ikaslea eta kontuak serio hartzen zituzten. Eskumuturra osatu eta berehalaxe egin behar izan nuen gure lehen pieza tornoan. Ez dut gogoan zehatz-mehatz zer zen. Ahalegindu nintzen ahalik eta egokien egiten. Eman nion forma. Lixatu nuen hatzak mindu arte. Eta iritsi zen nire lehen pieza hura maisuari erakusteko garaia. Eskuen artean hartu, eta denbora luzez erreparatu zion. Buruari alde batera eta bestera eragin zion gero.

—Gustura egongo haiz pieza honekin?

Ez nion ezer erantzun. Sorbaldak harrotu nizkion. Ez nekien emaitzarekin gustura nengoen. Gustura nengoen, hori bai, nola edo hala bukatu nuelako.

—Ez diok forma egokirik eman. Eta txukunurruti hutsa haiz. Honek bizar gehiago zeukak Akerregineko neskazaharrak baino.

Ateraldiak irri-murritxa marraztu zidan aurpegian. Irakasleak ez zuen errietaldia gehiegi luzatu.

—Barre egiten duk, Makatza, barre? Nik ez diat sermoirik botako. Baina gauza bat argi esango diat: saia hadi atezain ona izaten!

Burumakur irten behar nuen eskolatik egun hartan eta txoria baino alaiago irten nintzen, kanturen bat totelduz. Irakaslearen belarrietara ere iritsi zen nire atezain ospea. Asko zen hori niretzat! Eta gainera, zertarako balio ez nuen esan zidan aho-bizarrik gabe. Eta hori aski da bizitzan ze bide ez hartu erabakitzerakoan.

Hala ere, irakaslearenak baino poz handiagoa eman zidan aitarenak. Iluntze batez, ikuiluko lanak bukatu ondoren, aparteko ilusiorik ez balu bezala, pentsu-zaku baterantz bideratu ninduen okotz-imintzio batekin.

—Hor bazagok zerbait hiretzat.

Hori esan, eta etxe barrurako bidea hartu zuen. Ez zion ezer erantsi esaldiari. «Ea gustatzen zaizkian», «hire neurrikoak izatea espero diat», «Donostiara atzera-aurrera bat egin nian propio bila»... Ezer ez. Martxa egin zuen ezer erantsi gabe.

Pentsu-zakura hurbildu nintzen. Pardeltxo bat bazegoen haren gainean egunkari-orrietan bildua. Ez nuen sumatzen zer izan zitekeen. Niretzat zela esan zidan aitak. Zabaldu nituen orri bilduak. Ez nuen sinesten begien aurrean zer neukan. Eskularru-pare bat, futbol-atezainarenak. Begiratu egin nien lehenengo. Berri-berriak ziruditen. Ez zen aita merke-xuhurrean ibili. Probatu egin nituen gero. Neurri-neurrikoak. Ondo. Ze ondo? Primeran! Niretzat eginak ziruditen...

Eskularruek adinako poza eman zidan aita beratzen hasi zela sumatzeak. Berari ere helduko zitzaizkion nire balentria txikien hotsak. Esango zioten zerbait lagunek kalean edo txikiteoan. Gainera, eskumuturra igeltsatu eta lotuta eduki nuen bolada hartan ere ez nion inoiz etxeko lanetan laguntzeari utzi. Konturatuko zen bazuela etxean gizontxo bat. Eta gizontxo hori atezain ona izateko bidean zihoala jakitean, bere ezkortasunak uxatzen ariko zen.

Eskularruak oparitzeko izan zuen moduak ere eman zidan zer pentsatu. Horrelakoa zen gure aita. Orduko aitarik gehienak izango ziren horrelakoak. Sentimenduak azaldu baino nahiago...!

Eskularruak erantzi gabe, etxera jo nuen nik ere. Eta etxean, sukaldera. Eltzekoari eraginez ari zen ama. Harro erakutsi nizkion eskularruak. Ezagutzen zituen. Bazuen haien berri. Amak dena jakiten du eta gehiena gorde. Hari esker jakin nuen aita batera eta bestera ibili zela, «adarrak puskatu beharrean» nire eskularru haiek nondik nora lor-



tuko. Ezer esan gabe ere, aita ateperako atea zabaltzen ari zitzaidan.

Eskularru haiei esker ikasi nuen maitasunerantz bide asko daudela. Eta bide horietako batzuk bidezidor soilak izan arren, beti iristen direla jomugara.



### XIII. ATALA

Tailerretako sirena-hotsak gero eta urrunago sumatzen nituen. Bestelakoak hasi ziren ugaritzen nire belarrietan. Debako Hamaikak Bat-ek atezain bat behar ote zuen; Azpeitiko Lagun Onak-ek nigatik galdetu ote zuten Clu-bean; Realeko ikuskatzaile bat sarri-sarri etortzen zela Aritzbatalderra eta libreta batean apunteak hartzen ikusi zutela...

Lagunak lehengoak nituen, eskolan eta kalean eginak. Futbol-lagunak ere lehengoak, herrikoak gehienak eta auzo-herrietako bakanen batzuk; eta bizimodua ere, ez nuen asko aldatu. Lanbide Eskola, etxeko zereginetan lagundu eta futbol entrenamenduak. Nire ametsek bide bat zuten eta errealitateak bestelako bat aurkezten zidan egunero.

Apurka eta ziurrago sentitzen nintzen, ordea, atepean. Partida on samarrak egiten nituen gehienetan. Eta, tarteka, cantadaren bat. Barneratua neukan guztiz atezainaren eta itsasaldien arteko antzekotasunarena. Banekien ongi oraintxe goian eta oraintxe behean zaudela.

Hori hala da. Baina zoriak zerikusi handia du. Noiz tokatuko zaizu goi-goian sentitzeko moduko egun bat eta noiz lokatzetan aztarka sentitzen zaren egun horietako bat? Hori ez dago jakiterik. Jakin izan banu, egun malapartatu hartan Donostiara joango ez nintzatekeen. Mediku adarjotzaile hark nere izena gogoan hartu zuelako edo Aritzbataldera libretarekin zetorrenarena egia zelako, kontuak kontu, proba bat egitera deitu zidaten Realetik.

Memoria aztia da. Nahi duena gordetzen eta komeni zaiona ezkututzen du. Egun hartako irudi zehatzik ez dut gogoan. Baina egun txarra izan nuen. Horixe da gogoan dudana. Baloiek irrist egiten zidatela eskuetatik. Atepean lotua sentitzen nintzela. Atzelariei agindu bakar bat ere eman ez niela. Ez utzi!!! eta ez gutxi. Bat ere ez. Herrira itzuli nintzenerako, banekien beste aukerarik ez nuela han izango. Ederra nengoen ni Txillidaren espazio-denborak gobernatzeko! Zer gertatu zitzaidan? Auskalo! Zoria, seguraski.

Burumakur amaitu nuen denboraldi hura. Uda garaia izango zen, eguzkiak belarra ontzen duen urte sasoi. Aita eta biok Lanpardo mendian geneuzkan zelaietara joanak ginen belarretara. Ari ginela, norbait guregana zetorrela konturatu ginen. Aita atezuan jarri zen. Bero-zapa harekin haraino joateko zerbait garrantzitsua behar zuen. Begiak ñañartu zituen nor zen asmatu nahian. Hurbildu zenean, konturatu ginen. Txorten deitzen zioten herriko gizaseme bat zen. Izenez Salvador eta deituraz Etxabe. Eta irribartsu

zeturren. Ez zekarren, beraz, albiste txarririk. Horregatik helduko zion aitak zehar-hizketari.

—Jontxo! Hi hemen? Zer egiten dik txortanak arbolarik eta frutarik ez den lekuan?

—Beroak ez dik bromarako gogorik uxatu, Martzelino. Zuekin hitz egitera netorrek...

Futboleant aritua zen Txorten. Bilbo inguruan. Athleticen zerbait, eta Basconian gero. Segituan antzeman zitzaion ez zetorrela itzulinguruka ibiltzeko asmoz.

—Eskaintza bat zekarkiat hiretzat —esan zuen niri begira.

Aita sartu zen tartean.

—Eskaintza bat? Ba al daukake eskaintzeko adina?

Baietz erantzun zion Txortenek. Bitartekoa baino ez zela bera, baina abisua zekarrela Basauritik, ea irailetik aurrera bertako taldean jokatu nahi nuen. Basconia zuela taldeak izena, Espainiako Bigarren mailan ari zela eta jokalaria gazteentzat leku ezin hobea zela etorkizunean Athleticen jokatu ahal izateko. Bihotzak irauli bat eman zidan. Ximurtu bat hartu zuen aitaren kopetak.

Konturatu zen Txorten, eta fitxaketaren alderdi onuragarriak botatzen hasi zen. Diru-pizarren bat soldatatzat. Lotarako lekua eta mantenua doan, ahal zela familia euskaldun baten etxean. Mundua ezagutzeko aukera. Eta futboleant gora egitekoa.

—Gainera, Martzelino, mantentzeko aho bat gutxiago — eman zuen epaia aitaren bekozkoaz jabetuta.

—Eta lanerako bi beso gutxiago —erantzunda utzi zuen aitak.

Pentsatu egin behar genuela esan zion. Ondo pentsatu. Eta izango zuela gure erabakiaren berri luzera gabe. Joan zen Txorten eta guk belarretan segi genuen, elkarri ia hitzik ere egin gabe. Iluntze hartan lagunengana irten nintzen, egunez izan ez zen freskurak ere kale buelta bat egiteko gonbitea luzatzen zuen eta. Peio, Erramun, Jexux Mari eta gainerako koadrilakoek bazuten ohitura tabernaz taberna kantuan aritzekoa. Gustura aritzen nintzen ni ere. Baina iluntze hartan kantatu baino nahiago nuen kontatu. Ezin nuen barruan gorde Basconiakoen eskaintzaren poza. Bigarren mailan, baina futbolari profesionala izateko aukera nuen bizitzan lehen aldiz.

—Haraino joan behar al duk? —galdetu zidan Amaxkarrek Basauri Singapurren balego bezala.

—Uste diat kamixeta hori-beltza dutela. Ongi emango duk hik hori-beltz —esan zuen Peiok.

—Tornero txar bat galdu du munduak eta erdipurdiko atezain bat irabazi! —bota zuen ahotsa ponpoxotuz Erramunek.

Hori ez zegoen argi artean. Hitz egin egin behar genuen etxean joan ala ez joan. Eta aita ez nuen batere seguru sumatzen. Zertarako oparitu zizkidan eskularruak, gero he-

gan egitea galarazi behar bazidan? Bi besoen aitzakia egiten zuen, baina sakonagoko zerbait zen. Seme urrunduaren aitaren mina isila da. Baina min.





## XIV. ATALA

Txortenen bisitaren ondorengo egunetan urrun sentitzen nintzen aitarengandik. Oso urrun. Ni area batean eta bera bestekaldeko arean bageunde bezala. Area batean ni, eta bestaldekoan Martzelino. Orduan ez nekien, baina hala gertatuko zen handik lau urte eskasera, Europako Futbol Seleksioen arteko finalean.

Sukaldean bildu ginen hitz egitera. Sukaldean. «Hau zure area txikia da», esaten nion nik txantxetan amari. Hemen, futboleant atezaina bezala, jaun eta jabe zara. «Jaun ez. Eta jabe ere duda egiten diat», erantzuten zidan berak. Amaren area txikian egin genuen, ordea, nire etorkizuna baldintzatu zuen erabakia hartzeko bilera.

—Luzamendutan ibili gabe erantzunen bat emango geniola agindu genion Txorteni —ekin zion aitak.

Inork ez zuen hitzik atera. Ama patatak zuritzen ari zen eta tipula eta piperrak txikitzen nire bi arreba zaharrenak, Joakini eta Ramoni. Hirugarrena, Arantxa, eskuetan zuen arropa-aldizkari bati begira ari zen, belarriak gure hitzei

adi. Eta Ana, oso neskatoa artean, sartu-irtenean zebilen, soka-mutur bana eskuetan, jauziak eginez, bat, bi, hiru, lau, bost... ozen kontatzen zituen bitartean.

—Joateak badakik zer esan nahi duen... —segi zuen aitak, inork fisik ere esaten ez zuen eta—. Oso tarteka bakarrik izango duk etxera etortzeko aukera.

Isiltasuna. Joakinik aitaren eta hasperen egin zuen. Gorantz bihurtu zituen begiak. Bera zen etxe hartan fedearen bideari itsuen jarraitzen zitzaiona. Isiltasuna.

Anak jauzika segitzen zuen eta jauzien kontaketa ahots-goraz eramaten. Bat, bi, hiru, kau, bost, sei... Aitak, urduri, kargu hartu zion.

—Egongo al haiz isilik eta geldirik behingoagatik!

Ana ere mahaira bildu zen errietaldiaren ondotik. Isiltaldia berriz ere. Luzea. Eta isiltaldia hausteko, amaren hitzak:

—Proba egitearekin ez dugu ezer galtzen. Etxean moldatuko gara. Badakit ez dela gauza bera izango, baina familia handia gara, baditugu osaba-izebak... Haiiek lagunduko digute lanerako premia dugunean.

—Guk ere bai... lehenaz, gainera —bota zuten ia aldi berean Joakinik eta Ramonik.

—Eta nik ere bai —erantsi zuen, ahizpa-taldera atxikiz, Anak.

Amak aitari begiraturaz hitz egin zuen gero. Bazekien haren aldartea goxatzen.

—Mutilak hainbeste lan egin du. Zintzo portatu da gehie-nean. Eta amets hori badu, utziozu proba egiten behintzat.

Aitak buruaz baiezkoa egin zuen. Arrebek txalo-zarta batzuk jo zituzten eta txikienak musu eman zidan masailean.

—Etortzen zarenean, niri ekarri behar didazu sokasaltorako soka bat. Luze-luzea eta berri-berria. Eta heldulekuak koloretakoak dituen.

Baietz erantzun nion. Arantxak Bilboko arropa-dendei buruzko zerbait esan zidan. Eta Joakinik, Begoñako Basilikara bisitarik egin gabe ez uzteko. Zoragarria zela zio-tela joandako guztiek. Baietz nik denei. Baietz. Egingo ez nuen, ba, haiek esandakoa! Amaren eta arriben babesari esker egin zitzaidan samurragoa etxetik alde egitea.

Bilkura moduko hura amaitutzat jo genuen. Anak hautsi zuen unearen larria.

—Ama, gaur zer daukagu afaltzeko?

—Zera eukiko dinagu, basurdea saltsan! Ez al dun ikusten zertan ari garen? Gaur... patata-tortila!

Aitak gai nahasketa hura baliatu zuen, beti izugarri eskertu izan diodan esaldi borobil horietako bat botatzeko:

## MAKATZA

—Eta jakin ezak, gauzak oker joaten badira ere, hemen, etxe honetan, sekula ez zaiala babarrun-platerkada bat faltako.

## XV. ATALA

Gure herriko tren-geltokiak arrunta zirudien, bestek bezalako tren-geltoki bat. Bazuen, ordea, berezitasun bat. Asko irakurritakoa zen irakasle batek kontatu zigun gure herriko tren-geltokia munduko liburu garrantzitsuenetariko batean agertzen zela: Sigmund Freud-en *La interpretación de los sueños* liburuan. Ez naiz ongi gogoratzen zergatik eta nola. Uste dut kontatu zigula XIX. mendearen azken-azken urteetan bere ikaslea zen mediku batek Donostiatik Bilborako bidaia trenez egin zuela. Eta gerora amets batean agertu zitzaiola Varaus izeneko txartel bat tren-geltoki batean zintzilikatua. Ez zuela ulertzen ametsetan txartel hura nondik nora azaldu zitzaion. Eta halako batean konturatu zela, bidaia hartan tren-geltoki batean ikusi zuena zela. Horraino ulertu nion, ez gehiago. Ametsak ez dira ulerterrazak izaten.

Ba han nengoen ni, hamazortzi urte eginda, maleta bat arropa eta esperantza zakukada bat, herriko tren-geltokian. Psikoanalista batek ohatilan etzanarazi izan banindu, aterako zukeen ondorio ederra. Agurra ez zen filmeetan

agertzen diren horietakoa izan. Bakoitzak bere zereginak izaten zituen eta osaba batek lagundu ninduen geltokira. Ama sukaldean geratu zen. Aita lanean zen kanpoan non-bait. Arrebak, eskolan... Clubeko ordezkari bat eta Erramun ere agertu ziren azken orduan agur esatera. Besarkada pare bat eta aio. Erramunek, behin trena abiatu eta leihotik begira nengoela, oihu egin zidan:

—Hi! Ea noiz letzen dugun egunkarian Makatza, el mejor portero del mundo!

Agur egin nien eskuaz. Trena mantso-mantso abiatu zen. Herritik irten eta berehala, ezkerreko leihotik, Lanpardo mendiari begiratu nion. Lanpardo-Txorten-abisua-zalantzak-baiezkoa.

Handik pare bat minutura Mia azpitik igarotzen duen tunela. Han abiatu zen dena. Goitik egin nuen amets eta azpitik nindoan. Barruko umea nagusitu zitzaidan eta jolas bati ekin nion bat-batean. Hasi nintzen nire baitarako erre-pikatzen: «Makatza, zapelatzak txita bezala, rau! Makatza, zapelatzak txita bezala, rau! Makatza, zapelatzak txita bezala, rau!...». Tunelaren hasieran hasi eta tunelaren bukaeran amaitu, esaldia harrapatzen zuen lekuan harrapatzen zuela irteerak. Ume-jolas txatxu bat, ziurrenik atzean uzten nuenak burua gehiegi jan ez ziezadan asmatua.

Zumaiatik aurrera ere jolasarekin segi nuen, baina Debarako aspertu nintzen, tunel asko baitzegoen, gehiegi, itsas-ertzeko tarte hartan.

Eta orduan, bai. Orduan, mamuak hasi zitzaizkidan erraietan dantzan. Asko zen atzean uzten nuena. Etxea. Aita-amak eta arrebak. Lagunak. Hondartza. Munoa. Aritzatalde. Begoñaren begiradak. Barberia. Tornoa... Haurtzaroa, nerabe garaia, gaztaroaren zati eder bat...

Iraganmina uxatze aldera, Freuden lagunaren gisan, tren-geltokietako txartelak irakurtzeari ekin nion: Mendaro-Elgoibar-Eibar-Ermua... Trenaren joanak eta batik bat trenaren hotsak badu zerbit zerrendak egitera garamatzana. Horretan ari nintzen ni, tunel baten irteeran artean inoiz ikusi gabeko paisaia azaldu zitzaidanean. Mendiak! Baina ez gure herria inguratzen duten mendi etzan, otzan eta leunen modukoak. Mendi zorrotzak ziren haiek, haitzez gailurturiko mendiak. Mendi gotorrak. Mendi babesleak. Anboto aldera begiraturaz, jabetu nintzen ezagutu berri nuen lurralde hartan ez zitzaidala inoiz babesik faltako.

Basaurira heltzearekin are babestuago sentitu nintzen. Tren-geltokian Basconiako bi zuzendaritzakide neuzkan zain. Goxo hartu ninduten. Ponpoxo egin zidaten harrera. Nor nintzen nonbait!

Are etxeanago sentitu nintzen, maletak uztera apopilo hartuko nindutenen etxera iritsi ginenean. Senar-emazteak ziren. Arratiarrak. Euskaldun-euskaldunak. Lehen bostekotik ohartu nintzen han ez nintzela arrotza izango. Hala gertatu zen gerora. Nahieran elikatu ninduten mahaian. Entrenamenduetatik txiki-txiki eginda eta goseak amorratzen heltzen nintzenean, beti izaten nuen babarrun-pla-

terkada bat gainezka egiten zuena nire zain. Eta nik jan. Aitaren batean.

Aitak gauzak oker joanez gero, babarrun-platerkada bat sekula faltako ez zitzaidala esan zidan etxetik alde egitean. Etxetik kanpo ere, Zeberioko senar-emazte haiei esker, ez zitzaidan sekula faltatu izan. Baina etxean babarrun deitzen genien haiei, han, indaba deitzen zieten. Hizkuntzaz ere elikatu ninduten. Han hasi nintzen estreinako zondo-oren orde z ederto esaten, gehiegi-oren orde z larregi, eta bizkarra-ri lepo. Gure txikian ertz asko ditugula ikasi nuen, baloi borobilari esker.

Gauzak okerrenera joanda ere, babarrun asko eta indaba mordo bat jandako mutila izango nintzen ni.



## XVI. ATALA

Iragana iragan, aurrera begiratu behar nuela erabaki nuen Basconiaren zelaiko aldagelan sartu nintzen lehen aldi hartan. Zelai berria niretzat. Kide berriak. Entrenatzaile berria. Eta beste maila bat, futbolari zegokionez. Banituen area, karea eta sarea. Laugarren laguna, bakardadea, zen ikara sortzen zidana. Baina neure burua neukan. Eta barne-mintzo bat, hurrengo hilabete eta urteetan beti nerekin eramango nuena: Makatza, zapelatzak txita bezala, rau!

Konfidantza horrekin hasi nintzen entrenamenduetan. Ez nituen lanak hain txarto egingo, Piru Gaintza handiak segituan begia itsatsi zidanerako. Batean eta bestean esaten hasi zen atezain ona zegoela nire baitan, berezia nintzela, besteen sailekoa ez nintzela. Azkenean, ibili-ibili eginda Begoñaren aitak arrazoi izango zuen!

Amari hitz eman nion gisara, astean behin deitzen nuen etxera. Orduan jakiten nuen haien berri. Nireak ematean pozak puztu eta nahigabeak hustu egiten nituen. Beti zihoakidan dena ondo. Ederto nenbilen beti. Erramunekin

ere hitz egiten nuen tarteka, eta nire partiden nondik-no-rakoak zehatz-mehatz zekizkiela konturatzean, ahoa bete hortz geratzen nintzen.

—Hiru eta bat irabazi joan zen jaietan. Bazekiagu. Areaz kapotik jotako txute batez sartu ziaten gola- —esango zidan.

—Bai. Atzelari batek tapatuta nitxion. Ez nian baloia gain gainean neukan arte ikusi.

—Estirada tardía jartzen zian egunkariak.

—Nun letu duk hik hori?

Erramunek kontatu zidan ia neuk bezain ongi ezagutzen zituztela nire ibilerak. Herriko periodiko saltzaile eta bantatzaileak, Pako Garrok, Basaurira joan nintzenetik propio ekarrarazten zituela Bizkaitik El Correo-ren ale pila bat. Eta ahitu egiten zirela.

—Herrian erne-erne gaudek hik zer egingo —esan zidan behin Erramunek. Laister kromotan ikusiko haugu.

Zama erantsia niretzat. Baina ongi zihoazkidan futbol kontuak. Atezain titularra nintzen Basconian. Oro har, denboraldi ona egiten ari nitzen. «Segundan primeran dabilena laister duk Primeran» bota zidan behin Erramunek telefonoz. Hitz-joko polita iruditu zitzaidan. Eta akaso, ez zebilen egiatik gutziz urruti. Gauetan, gelako bakardadean, kolore txuri-gorrietan pentsatzen hasia nengoen. Basconia ez zen garai hartan Athletic-en filiala. Baina bi Cluben ar-

teko harremana estua zen. Basconian nabarmentzen zenak Athletic zeukan zain-zain...

Beste zuri-gorri batzuk eman zidaten, ordea, ordurarte ez neukan ospea. Cartagena kanporatu ondoren, Atlético de Madrid-en aurka egokitu zitzaigun Kopa kanporaketa. Talde handia zen Atlético de Madrid. Liga irabazi berri zuen aurreko denboraldian. Esan beharrik ez dago nor zen faborittoa. Baina bi partidak berdinduta bukatu genituen. Berdinketa hausteko partida erdibidean jarri ziguten. Valladoliden.

Hura eguna izan nuena! Neuk aitortzen dut. Inoiz baino zapelatzagoa izan nintzen. Makatza, zapelatzak txita bezala, rau!! entzuten nuen erdiraketa bakoitzean. Baloi urrunak niretzat; hurbileko baloiak altzora; urrutiko jaurtike-tak niretzat; gertukoak besoz edo hankaz jo, eta kanpora. Sekulako ezustekoa eman genion jendeari. Atlético de Madrid-i nagusitu gintzaizkion. Gutxitan sentitu izan naiz orduan bezain asebate.

Elche aldetik zetozen hotsak entzuten hasi nintzen. Valenciatik zetozenak ere bai. Baita Atlético de Madrid-enak ere. Ordurako, ordea, oso bertakotuta negoen Basauri aldean. Eta Athletic Athletic zen, lurralde hartan futbolzale oro biltzen zuen taldea. Bilbokoa. Bertakoa. Betikoa. Bere txikian, handi. Athletic-en deia zen grinaz itxaroten nuena.

Lanean segi nuen lantegiak nagusi ziren ingurumari hartan. Beti ez zitzaizkidan gauzak nahi bezala atera. Hamar zastada jasotako egunik ere ezagutu nuen. Hamar aldiz

baloia nire sareetan. Hamar aldiz zast! soinua entzutearen amorrua. Bartzelonan izan zen; Atlético de Madrid kanporatu ostean, culé-ak egokitu zitzaizkigun aurkari. Ez zen ezustekorik izan. Bi sartu zizkiguten Basaurin. Ez zen gehiegi. Bueltako partidari, ordea, hamar aldiz joan behar izan nuen sareetara baloiaren bila. Zapelatzat lo. Edo itsas-behera izugarria, hondartzan abiatu eta gerrirainoko uretan moilatik aurrera ia Allepuntara iristeko modukoa.

—Hi lasai... —esan zidan Erramunek biharamunean, Basaurira telefonoz deituta—. Badakik nik zer egin dudana? Egunkaririk erosi ez. Hartara ez dela gertatu ere egin ematen dik...

Erramunek egunkaririk irakurri izan balu, jakingo zukeen ez nindutela hamar gol jasoarren gaizki ipini. Zalduek izan zuela meritua. Saldua aurkitu nintzela behin eta berriz, puntaneko jokalarik haien jaurtiketa indartsu eta ongi bideraturikoen aurrean. Kubalak berak aitortu zuela nik hala nahi banu, atek zabalik nituela Barcelonan eta atezain titular izateko traza osoa hartzen zidala.

Erramunek egunkaririk irakurri izan balu, kazetarien galderak eta nire erantzunak irakurri ahal izango zituzkeen.

—Zure etorkizunaz asko hitz egiten da. Bolo-bolo dabilta fitxaketa hotsak. Zer diozu?

Ez nuen aitak edo lagun-koadrilakoren batzuk zuten mihi zolirik. Lehen elkarrizketa haietan, are gutxiago. Zer nioen nik etorkizunaz?

—Ez dakit —erantzun nion—. Gerora ikusiko da hori...

Erantzuten ari nintzela, arreba txikia etorri zitzaidan go-  
gora. Ana. Ana Mari. Barcelonaren aurkako partidaren  
ondoren, bost-sei egun jai eman zizkiguten eta herrira  
itzultzeko baliatuko nituela erabakia neukan. Arazo bat  
banuen, ordea. Ez nuen esku-hutsik azaldu nahi etxera.  
Hitza eman nion. Orain, non lortu behar nuen nik soka-  
saltorako soka polit bat, helduleku koloretsuak zituena?



## NIRE TALAIATIK

Badut talaia bat orain, hemen, Bilbon, San Mames futbol-zelaiaren atarian, Gabriel Arestik Anton eta Gilen lanean jarri zituen lekutik oso gertu.

Hiru metro t´erdiko altueratik begiratzan diot orain Bilbori, Euskal Herriari, munduari... Gehitxo akaso niretzat. Metro t´erdiko koska baten gainera igo naute, eta egin ere naizena baino handiagoa egin. Bi metro pasatxo. Hamabi-hamairu urte nituela hau jakin izan banu, ez nuen lo-gelako paretaren kontra jarri eta nire burua neurtzen hainbesteko lanik hartuko!

Konturatuko zinetenez, Makatzari nik kendu diot hitz egiteko txanda. Makatzak Makatza zen bitartekoa lasai konta zezakeen. Lotsa handiagoa emango lioke handik aurrerakoa kontatzeak. Nik azal gogorragoa dut brontzekoa egin ninduten eta. Nor naiz ni? Joxe Anjel Iribar Kortajarena. Zarautzen jaioa, 1943ko martxoaren 1ean, Aingeru Guardakoaren egunean.

Basaurira iritsi, jokatzeko hasi eta berehalaxe jarri zidaten Txopo goitizena. Luze ikusten ninduten baloiaren bila jauzi egiten nuenean. Bitxiena da izengoiti hori jarri zidana ez zuela nire betiko izengoitiaren berri. Eta biak direla arbolekin zerikusia dutenak. Makala izaten hasi nintzen makatza izateari utzi gabe.

Hainbat Club ari ziren ate-joka, baina Athletic-en deia zen nik zinez itxaroten nuena. Heldu zen halako batean. Diru-sarrera garrantzitsua Basconiarentzat eta baldintza onak niretzat. Baina hori da gutxienekoa. Dei hark erabat aldatu zidan bizitza. Orduz geroztik, eta joan dira hirurogeitaka urte, zuri-gorria izan dut bihotza. Zuri-gorrian egin dut amets orduz geroztik gauero.

Itsasgorak itsasgora eta itsasbeherak itsasbehera, ibilbide arrakastatsua izan dut Athletic-en, Malagan lehen partida hura jokatu nuenetik. Ez zitzaidan sekula burutik pasatu ere egingo, veraneanteei ziria sartu eta hamabi penalti gelditu nizekin egun hartan entzun nuen «es cojonudo» hura, gerora behin eta berriz entzungo nuenik. Jendetzak harmailetan kantatua, ordea. San Mamesen askotan entzun izan dut «Iribar, Iribar, Iribar es cojonudo, como Iribar no hay ninguno». Harrigarria badirudi ere, ez nuen estreinako San Mamesen entzun, Santiago Bernabeu futbol-zelaian baizik. Kopako finala zen. Inoiz izan den Zaragozarik onenaren aurka. Bi eta huts galdu genuen. Baina hamar sartu zizkidaten Barcelonako egun hartan bezala, geldiketa onak egin izango nituen. Madrilera joandako milaka zale, ez dakit nondik-nora, kantu hori abesten hasi



ziren, eta bukaeran bizkarrean atera ninduten zelaitik. Bi zastada jasaten dituen atezainaren poza ez da sekula poz betea, tamalez.

Nik badakit Txillida irudigile ospetsua ez zela Edmundo, baizik eta Eduardo. Izan genuen gerora harremana. Nire eskuak berak marraztu zituen. Ongi, gainera. Bazekien hark zer ziren atezainaren eskuak, atezaina izana baitzen, harik eta min hartu zuen arte. Bere pasadizo baten berri izan nuenean, irribarreak ihes egin zidan. Zaharturik ordurako, telebistaz ematen zuten futbol-partida bati begira omen zegoen Txillida. Iraganminak jota edo, hasperen egin, eta hala bota omen zion emazteari: «Nik lesio larri hura izan ez banu...». Braustakoan erantzun zion emazteak, izan zitekeena zena baino hobea ez zitekeela izan argi utziz: «Orain Elcheko entrenatzaile izango zinatekeen!». Berez ez du Elchek ezer txarrik, baina nik ere Basauriko garai haietan, nahiago nuen Athletic-en xuxurla bat Elchereen dei bat baino.

Athletic-en eman ditudan urteei esker ezagutu dut mundua. Itsaso bat baino gehiago zeharkatu dut. Izan naiz Ameriketara; izan naiz Ingalaterran, Kanariar Uharteetara ia urtero joan izan naiz. Munoan pentsakor, itsasoari begira, emandako une haiek ez ziren guztiz alferrikakoak izan. Bidaia izan dut, bai, itsasontziz, autoz, autobusez asko, eta hegazkinez ere bai. Trenez ibili izan naiz gutxi samar. Zarautzetik Basaurira egin nuen lehen bidaia hartatik gaur egunera, ez dakit inoiz egin dudan Bilbotik Zarautzerako biderik trenez. Eta egingo nuke gustura hamazortzi urte

nitueneko ametsak, egonezinak, beldurrak eta pozak berriz sentitu ahal izateko bada ere. Ezin dut, ordea. Brontzezkoa eta zutikakoa egin ninduten. Ezingo nuke eseri. Eta tente joaten ere nahikoa lan. Bi metro pasatxo ditut. Kabituko al nintzateke? Eta eskuak, biak, baloiari helduz jarri zizkidaten. Ez. Etorrerako bidaiarekin askietsi beharko dut honez gero.

Arrazoa zuen Makatzak. Ez nenbilen oker ni. Zarautzeko tren-geltokia bada zerbait. Ez ni handik abiatu nintzelako; ez Freudek La interpretación de los sueños liburuan aipatzen duelako ere. Garrantzitsua da, XX. mendearen haisera samarrean Zarautzeko Batzokia ireki zutelako. Eta inauguraziora Hernaniko Txistulari taldea joan zelako. Geltoki hartanxe jaitsi ziren, eta okasiorako propio asmaturiko pieza bat joz abiatu ziren kalean behera herrigunerantz. Oso gerora, eta aspaldi iada aldi berean, ni futboletik erretiratu berritan, Carmelo Bernaolak pieza hura hartu zuen oinarri Athletic-en ereserkia sortzeko. Bai ereserki ederra egin ere! Ipini nauten tokitik entzuten dut nik. Eta entzuten dudan bakoitzean hunkitu egiten naiz. Eskerrak une horretan inor gutxi egoten den niri begira! Denak zelaian egoten dira, barruan, eta niri ez didate jaramonik egiten. Hobe. Bestela zientziarentzat arazo bat sortuko litzateke. Nola liteke «Athletic! Ieup! Athletic gorri ta zuria...» entzun eta brontzezko irudi bati besoetako ileak tente jartzea? Ez dirudi egia. Bada.

Hatzaparren artean harrapatua daukat baloia. Hala egin behar du atezainak. Zapelatzak txita bezala, rau! baloia be-

reganatu. Miako baserritar hark esaldi hura bota zuen ala ez ez dakit oraindik ziur. Behin, barru-barruan gordetako sekreturik zokoeneko horiek elkarri kontatzen hasi ginen batean, Miako baserritarraren esaldiarena aitortu nion Erramuni. Burlaizez begiratu zidan. Han zela bera eta hara ez zela baserritarrik inguratu ere egin, aitortu zidan. Nire irudimenaren lanak izango zirela. Lagungarri izan banuen, ongietorriak zirela zapelatza eta txita, baina zin egingo lukeela arratsalde hartan, futboleant ari ginela, ez zitzaigula inor ere hurbildu.

Orain ez zait zapelatzik edo txitarik inguratzen. Usoak bai, nahi hainbat. Eta baita kale-txoriak ere, txolarreak. Sorbaldatan kokatzen zaizkit, edo buru gailurrean, bi eskuak katigu dauzkadala jakitun, oso lotsagabe. Amultsu egiten diet harrera.

Gustura nago nagoen tokian. Esker ona zor diot herri ere baden hiri honi, Athletic-eko zalegoari, zale ez izan arren nire irudia ikustera etortzen den jendeari... Denek uste dute hemen ematen ditudala, geldi, kieto, egunak eta gauak. Ez beti. Zintzoa izan naiz, baina ez santua. Ohi-tura hartu dut iluntzearekin, jauzi egin beherantz, eta ihes egitekoa. Joaten naiz ibai-ertzean gora eta han elkartzen naiz ibai-ertzean behera datorren armiarmarekin. Gauak janzen gaitu biok beltzez. Jaxin eta biok. Futbolaz hitz egiten dugu eguna argitu arte. Atezainaren izaeraz eta lanaz. Areaz, sareaz, karez. Mareaz eta... bakardadeaz. Konfidantza handia hartzen ari gara elkarrekiko. Makatza deitzen dit dagoeneko.



## ANDONI EGAÑA

Andoni Egaña historiako bertsolaririk garrantzitsuenetakoa da. 1961ean Zarautzen jaioa eta Euskal Filologian lizentziatua, lau aldiz izan zen Euskal Herriko txapeldun (1993, 1997, 2001 eta 2005) eta 1986an parte hartzen hasi zenetik 2009an txapelketari agur esan zion arte, edizio guztietan finalera heldu zen. “Makatza” ez da idazle gisa izan duen lehen esperientzia, hainbat liburu idatzi baititu eta zutabegile gisa kolaboratu baitu, hala nola Berria egunkarian.



Athletic Club Fundazioak sei mila ale argitaratu ditu, ikas-tetxeetan, liburutegietan eta futbol-klubetan doan banatzeko.

Athletic Club Fundazioan gizarteko pertsonen bizimodua hobetzeko ekarpenak egitea da helburua, eta bereziki, beharrian handiena duten haiena. Hiru arlo nagusi landuz: Komunitatea, Inklusioa eta Kultura. Hiru arlo horiek era transbertsalean eta ardatz irmo bat oinarri hartuta landuz: Athletic-en balioak eta futbola inklusiorako eta eraldaketarako tresna gisa erabiliz.

[www.athleticclubfundazioa.eus](http://www.athleticclubfundazioa.eus)

Makatza gotorleku, kale-baserri handientsu baten izena da, Zarautzen historiaren parte dena, eta Euskal Herriko futbolaren historiaren parte den mutil baten etxebizitza izateko bost mendez itxaron zuena. Herrian deitzen zioten Makatza mutil horren historia da hau, futbola maitatzen hasi, gaur egungo mito bilakatu eta jokalarien belaunaldiak inspiratzera nola iritsi zen kontatzen duena.

[www.athleticclubfundazioa.eus](http://www.athleticclubfundazioa.eus)